

eman ta zabal zazu



Universidad
del País Vasco

Euskal Herriko
Unibertsitatea

ALDEZLEAREN URTEKO TXOSTENA

2017ko abenduaren 15a – 2018ko abenduaren 14a

Iñigo Urrutia Libarona

aldezlea

AURKIBIDEA

Sarrera	5
1. 2018ko aztergaiak	8
1.1. Bulegora etorritako pertsona kopurua eta aztergai kopurua	8
1.2. Bulegora joan diren pertsonen generoa.....	10
1.3. Bulegora joandako pertsonen erabilitako hizkuntza.....	11
1.4. Aztergaiak, kolektiboaren arabera: ikasleak, irakasle-ikertzaileak, AZPko langileak eta "Beste batzuk".....	12
1.5. Aztergaiak, campusaren arabera.....	14
1.6. Aztergaiak, ikastegiaren eta zerbitzuen arabera.....	15
1.7. Aztergai motak.....	17
1.7.1. Kolektiboek planteaturiko aztergai motak.....	18
1.7.2. Emakumeek eta gizonek planteaturiko aztergai motak.....	20
1.8. Kolektibo bakoitzak planteatutako gaiak.....	21
1.9. Bulegoaren esku-hartzea.....	28
1.9.1. Baietsitako kexen gaiak.....	29
1.9.2. Baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak.....	32
1.10. Jasotako erantzuna.....	33
1.11. Inplikaturako zerbitzuen eta arduradunen lankidetzaren.....	33
2. Aldezlearen beste eginkizun batzuk	34
2.1. G9 taldeko defendatzaileekiko lankidetzaren.....	34
2.2. Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziaren XXI. Bilkura	34
2.3. CEDUren XI. Batzar Nagusia.....	34
2.4. CEDUren defendatzaileekiko lankidetzaren foroetan parte hartuta.....	34
2.5. UPV/EHUren Gobernu Kontseiluetan parte hartzea.....	35
3. Urteko txosten ekonomikoa	35
4. Ondorioak eta gomendioak	35
I. ERANSKINA: 2018ko aztergaiaren zerrenda	47

Sarrera

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatearen Estutuetako 77. artikulua betetze aldera, Aldezlearen zerbitzuaren urteko jardueren txostena aurkezten diogu Unibertsitateko Klaustroari. Txostenak 2017ko abenduaren 15etik 2018ko abenduaren 14ra bitarteko aldiaren berri ematen du.

Urteko txostenaren aurkezpena aukera paregabea izaten da beti, unibertsitateko kide guztiei UPV/EHUren erakunde hau osatzen dugun pertsonen taldeak egiten dugun lanaren berri emateko. Aldi berean, aukera on bat da unibertsitateko kideen eskubideen eta askatasunen bermearen egungo egoerari buruzko gogoeta egiteko, baita UPV/EHUren zerbitzuen jarduerari buruz ere, eskubideen bermearen ikuspegitik begiratuta. Edonola ere, txosten honetan eskubide eta eskubideen egoerari buruz ematen den ikuspegiak ez digu egoeraren argazki osoa erakusten, eskubide eta askatasunen erabilerari lotutako alderdi asko eta asko unibertsitateko beste zerbitzu batzuetatik bideratzen baitira. Batzuetan zerbitzu espezifikoa izaten dira. Ikusi, adibidez, berdintasunerako zuzendaritza, zeinak, besteak beste, genero indarkeriari lotutako egoerak ematen direnean jarduten baitu, eta erakunde hau lankidetzan estuan aritzen da harekin; hor dugu ere Prebentzio Zerbitzua, edo modu orokorrago batean, ikasleen kontseiluak, dekanotzak eta ikastegietako zuzendaritzak, edo errektoregoaren zerbitzuak, horiek guztiek araudian aitortutako eskubideei lotutako alderdien gaineko erabakiak hartzen dituzte askotan.

Gure iritziz, UPV/EHU osatzen dugun pertsonen kolektibo handiaren eskubideen bermeaz kezkatzea eta arlo horretan etengabe hobetzea oinarrizko faktoreak dira, gure unibertsitate publikoaren garapenerako. Ikuspegi horretatik, pertsona ororen eskubideak bereizkeriarik gabe bermatzeak hobekuntzak dakartza administrazio prozedura nahiz jardunean, irakaskuntzaren kalitatean eta zerbitzuen funtzionamenduan, eta horrela hurbilduko gara, hain zuzen, unibertsitate gero eta lagunkoiago eta errespetagarriago batera. Azken batean, eskubideen bermea hobetzea unibertsitateko zerbitzu publikoa bultzatzeko modu on bat da.

Aldezlearen bulegoaren antolakuntzari dagokionez, aurten jarraipena eman diogu iaz martxan jarritako funtzionamendu sistemari; hala, asteko lanaldia Donostiako eta Leioako bulegoen artean banatu dugu, eta bisita hitzartuak egin ditugu Arabako Campusera, unibertsitateko kideekiko hurbiltasun handiagoa bilatu nahian. Era berean, espedienteen eraketan gaien analisi juridikoari lehentasuna emateko ildoari jarraitzen diogu, gure erabaki eta gomendioetan ahalik eta sendotasun handiena lortu nahian.

Iritsi zaizkigun gaiak berehala aztertzen saiatu bagara ere, barkamenak eskatzen ditugu, baldin eta baten batek sentitu badu ez diogula gaiari heldu berak nahi bezain azkar. Arazoak konpontzeko lanean jarri dugu arreta guztia; hala, interesatu gara argudiatutako arrazoietan eta, hala behar izan denean, eraginpeko beste aldeek izan ditzaketen horietan, edo, hala behar izan denean, informazioa eman dugu aitortutako eskubideak bermatzeko UPV/EHU aplikatzen den araudian aurreikusitako bide formalei buruz.

Aurreko urteetan bezala, txosten honen aurkezpenaz baliatuta, gure unibertsitatearen funtzionamenduari lotutako alderdi zehatzen gaineko gogoeta bat egin nahi dugu, espiritu kritikoz eta, aldi berean, positiboz. Abagune honetaz baliatuta, azken urte honetan egin dugunaren berri eman nahi diogu Klaustroari, eta, horrez gainera, unibertsitateko kideei kezka eragiten dieten zenbait arazo eta artegitasun helarazi nahi dizkiogu.

Era berean, txostena tresna egoki bat da Klaustro honek aldezleari eman dion zeregina betetzean izandako jarduera onak, akatsak eta, bereziki, hobetu beharreko puntuak aztertzeke eta horien gainean gogoeta egiteke, betiere gogoetaz eta jarrera kritiko berberaz.

Joan den ikasturteko txostenean (2017ri dagokiona), aldezlearen jardueraren oinarrian dauden prozedurak deskribatu ziren, horiek eragiten dituzten arazoien arabera. Orduan esandakoa berresten dut, eta soil-soilik horri lotutako oinarritzko zenbait ideia azpimarratu nahi nituzke: egin ohi diren zereginak hiru motatakoak izan daitezke:

- Kontsultak: pertsona interesdunek egiten dituzte kontsultak, eta jakin nahi izaten dute beren eskubideek zer irismen zehatza duten edo nola babes ditzaketen, eta zein den unibertsitateko organo eta zerbitzuen jarduera eremua. Aholkularitza zereginak dira.
- Kexak eta erreklamazioak: UPV/EHUko kideek edo UPV/EHUkoak izan gabe interes legitimoa duten pertsonen planteatzen dituzte, beren eskubide edo interes legitimoak urratuak izan direla irizten diotelako administrazioaren jardueratik edo jarduera ezagatik edo UPV/EHUko organoek, zerbitzuek, agintariek edo irakasleek hartutako erabakiengatik. Zerbitzu honen hurrengo jarduera izan daiteke; alde batetik, orientazio edo jarraipena egitea, non interesdunari adierazten baitzaio zer urrats egin behar dituen bere kasua konpontzeko, baldin eta aldezlearen jarduera galarazita belego, esate baterako, prozedurazko ohiko bideak agortu ez direlako; eta bestetik, unibertsitate erakunde eskudunari gomendio bat helaraztea, dagokion azterketa kontrastatua egin ondoren. Gomendio horrek araudia betetzeari buruzko oroigarri bat ediki dezakete, edo kasuari aplikatu dakioken arauen bat interpretatzeko moduari buruzko iradokizun bat; araua aldatzeko proposamen bat ere eduki dezake, edo arau edo akordio berri bat onartzeko aukera iradoki, ematen dugun unibertsitate zerbitzu publikoa hobetzeko, edo proportzionaltasun epai bat egin, babestea merezi duen eskubide edo interesen bat bermatzeari begira.
- Bitartekaritza-kontziliazio prozesuak: unibertsitateko bi kideren edo gehiagoren artean sortutako gatazka kasuetan planteatzen dira. Konponbidea bilatzeko, inplikaturako pertsonen arteko elkarrizketa bilatzen da, eta aldezleak bitartekari gisa jarduten du, bi aldeen arteko akordio egoki bat bilatu nahian.

Aipatu berri ditugun hiru jarduera motez gainera, bulegoan "gertakizunen kontaketak" ere jasotzen dira, eta horien bidez, interesdunek egoera edo gertakizun baten berri ematen diote aldezleari, inolako jarduerarik hasteko eskatu gabe, edo ez jarduteko eskatzen.

Egindako lau jarduera mota horietako bakoitzaren atzean eta, zehazki, planteatzen zaizkigun eta jasotzen ditugun kexen atzean pertsonak daudela jakitun gara. Unibertsitatean duten zeregina normaltasunez egitea nolabait eragozten dien arazo, kezka edo gatazkaren bat helarazten dizkiguten pertsonak dira, unibertsitate bizi normaltasunez egiteko zailtasunak dituztenak. Ikuspegi horretatik, gure nahia izan da -eta izango da aurrerantzean ere- gure zerbitzura etortzen diren pertsonen ahalik eta arreta onena eskaintzea eta jasotako kasu guztiak konpontzen saiatzea.

Edonola ere, gure lanaren eraginkortasuna aztertzeke unean, badira hainbat alderdi aintzat hartu behar direnak. Izan ere, batzuetan, Leioako edo Donostiako bulegoetara etortzen diren pertsonen beren ustez beren interesak kaltetzen dituzten alderdiak planteatzen dituzte; alabaina, gerta daiteke batzuetan gure erantzunak dezepzionatzea, arrazoi osoa ematen ez badiegu. Aldezlea ez da figura bat, erreklamazio bat planteatze hutsagatik pertsona bati beti arrazoia eman behar diona. Aldezlea ez da abokatu bat. Aldezlearen jarrera instituzionalak gertutasuna eskatzen du arlo pertsonalean, baina haren lanak arrakasta eduki dezan jakin behar du gertaerak interpretatzen, egoera bere ñabardura guztiekin ulertzen, konponbide edo argibideren bat eman dezaketen pertsonen edo aldeei entzuten, batzuen eta besteen arrazoiak kontrajartzen, aztertzen, argudioak ematen eta kasu bakoitzean zuzena den konponbidea ematen, eta hura transmititzen.

Edonola ere, aldezleak ez ditu epaiak ematen. Unibertsitate organoek ez dituzte haren gomendioak eta iradokizunak nahitaez bete behar. Hori dela eta, gure lanaren eraginkortasuna organo eta zerbitzu horien menpe ere badago, araudiaren arabera erakunde honekiko eskatzen zaien lankidetzaren betebeharra betetzeko unean. 2018an, lankidetzaren hori kasurik gehienetan eman da, eta, hala gertatu ez denean, desadostasunak arrazoiak izan dira, eta hori ere lankidetzaren esparruaren barruan sartzen da. Gure esker ona adierazi nahi diegu aldezlearen aurrean prozeduretan inplikaturik egon diren unibertsitate organo eta zerbitzu guzti-guztiei.

Txosten honen edukiak aurrekoen oinarritzko egitura bera du, gaien eta haien ezaugarrien bilakaera aztertu ahal izateko. Hasteko, 2018. urtean bulegora iritsi diren kasuak deskribatuko ditut, aurreko urteetakoekin erlazioan jarrita, horren gaineko zenbait ohartarazpen egiteko. Jarraian, bulego honek 2018an egindako beste jarduerak batzuk deskribatuko dira, hala ohikoak nola beste jarduerak batzuei lotutakoak, eta urteko txosten ekonomikoa aurkeztuko da. Azkenik, txostenaren amaieran zenbait gogoeta orokor egiten dira. Sartuta dago, halaber, eranskin bat, non 2018an aztertutako gai guztiak zerrendatzen baitira taula batean.

Amaitzeko, agintari akademiko guztiek 2018. urtean ere UPV/EHUren Aldezlea erakundearekin izan duten prestutasuna, harrera eta kontsiderazioa eskertu nahi ditut. Errektore andreari eta haren gobernu talde osoari eskerrak ematen dizkiet

eskatu dudan guztietan harrera egin didatelako, batzuetan gai desatseginak landu behar izan baditugu ere. Eskerrik asko zuen prestutasun, laguntza eta ulermenagatik, eta Aldezlea erakundeari erakutsitako errespetuagatik. Horiek guztiek erakunde honen independentzia errespetatu dute, eta hori guztiz beharrezkoa da haren funtzionamendu zuzenerako. Era berean, emandako laguntza eskertu nahi diet ikastegietako zuzendari eta dekanoguztiek, sailtetako zuzendariei, gerentziako taldeari eta arlo nahiz ataleko arduradun guztiei. Eta eskerrik asko ere Klaustroari niregan jarritako konfiantzagatik.

Amaitzeko, nire eskerrik zintzoena adierazi nahi diet Aldezlearen zerbitzuko lankide Ana Saralegiri eta Maite Estévezi, haien pazientzia eta eraginkortasunagatik eta erakundearekin duten konpromisoagatik. Haiek gabe, ezinezkoa izango litzateke jarraian zerrendatzen diren jarduera asko eta asko egitea.


1. 2018ko aztergaiak

Atal honetan, bulegoak 2018an landutako aztergaiak eta haien oinarritzko ezaugarriak deskribatuko ditugu. **I. ERANSKINEAN** urte osoko aztergaien zerrenda biltzen da.


1.1. Bulegora etorritako pertsona kopurua eta aztergai kopurua

2018. urtean, 135 pertsona joan dira aldezlearen bulegora, eta 138 aztergai planteatu dituzte guztira (Kontsultak, Kexak eta Bitartekaritza eskaerak kontuan hartuta). Datuak joan den ikasturtekoaren azpitik daude (iaz 24 pertsona gehiago joan ziren, eta 26 aztergai gehiago konpondu ziren); dena dela, datuak erakunde honen urteko kasuen batez bestekoaren barruan sartzen dira. Orotara, UPV/EHUren Aldezlearen zerbitzua martxan jarri zenetik, 843 pertsona igaro dira bertatik (batzuk hainbat urtez joan dira), eta 956 kasu planteatu dira.

Lehen grafikoan ikus daitekeenez, zerbitzuaren lehenengo hiru urteetan gora egin zuten arian-arian bai kasuek bai hartutako pertsonen kopuruak. Joera horrek beheranzko aldaketa izan zuen, 2015ean eta 2016an. Joera hori 2017an irauli zen (aldezlea ordezkatu zen urte berean), eta 2018an lehengo batez bestekoak berreskuratu dira (batez bestekoaren gainetik dauden ertzetan gaude).





Hurrengo ataletan, aipatutako 138 aztergaiak hartuko ditugu oinarrizko erreferentziatzat. Hala eta guztiz ere, aipatzekoa da, aztergai horiez gainera, 6 pertsonak beste 6 aztergai aurkeztu dituztela bulegoan. Pertsona horiek ez zuten aurkeztu ez kontsultarik, ez kezarik, ez bitartekaritza eskaerarik; haatik, gertakizun batzuen berri eman zuten, unibertsitatearentzat garrantzitsuak izateagatik aldeak jakinaren gainean egon behar zuela kontsideratu zutelako. Bigarren grafikoa ikus daitezkeenez, "gertakizunen kontaketa" kopurua joan den ikasturtekoaren antzekoa da.



1.2. Bulegora joan diren pertsonen generoa

Aldezlearengana jo duten 135 pertsonen artetik, 70 emakumeak ziren, eta 65, gizonak. Hirugarren grafikoan, aldezlearen sei urteko ibilbideari dagozkion maiztasunak ematen dira, eta laugarrenean, ehunekoak.





Laugarren grafikoan ikus daitekeen moduan, lehenengo bi urteetan gertatzen zenaren aurrean, azken bost urteetan gure zerbitzura joan diren pertsonen sexuen arteko proportzioa UPV/EHUren barruko proportzio errealerara egokitzen joan da (gaur egun gure unibertsitatean % 47,0 gizonak dira, eta % 53,0 emakumeak –iaz proportzioa % 48,2 eta % 51,8 zen –).

Joan den ikasturtean aurkeztu genuen txostenean, emakumeek bulego honetan planteatutako aztergai kopuruaren eta unibertsitatean emakumeek duten presentziaren artean zegoen proportziorik eza nabarmendu genuen, haiek planteatutako aztergaien kopurua haien presentzia baino askoz ere handiagoak baitzen. Orduan, joera horren eta haren eboluzioaren aurrean erne egotea proposatu genuen, horrek unibertsitatean gatazken feminizazioa ekar baitzezakeen. Azken urteko datuak, ordea, ez doaz noranzko berean. Eta, aurreratu dugunez, sexuen araberako aztergaien banaketa unibertsitatean dauden gizonen eta emakumeen proportzioaren oso antzekoa da.

1.3. Bulegora joandako pertsonen erabilitako hizkuntza

Aipatutako 138 kasuetatik, 38 euskaraz planteatu ziren, eta 100, gaztelaniaz.




Seigarren grafikoan ikusten denez, aurreko urteetan baino apur bat handiagoa izan da. Lehenengo bost urteetan, euskararen batez besteko erabilera % 17,4koa izan zen, eta 2018an, berriz, euskara kasuen % 27n erabili da. Lau kasuetatik bat baino gehiago euskaraz planteatu eta ebatzi dira. Euskararen erabilera aurrera egiten ari da gure zerbitzuan, eta datozen urteetan hobetzen jarraitzea espero dugu.


1.4. Aztergaiak, kolektiboaren arabera: ikasleak, irakasle-ikertzaileak, AZPko langileak eta "Beste batzuk"

Kolektiboaren arabera, 2018an, ikasleek 57 gai planteatu dituzte; irakasle-ikertzaileek, 48; AZPko langileek, 15; eta, unibertsitatekoak ez diren pertsonak, berriz, 18 ("Beste batzuk" kategoria). Unibertsitatekoak ez diren pertsonen kasuak onartzen jarraitu dugu (batez ere sarbideari, matrikulari, izen emateari, plazen eta ordezkapen poltsen deialdiei... lotutako gaiak dira), horrela UPV/EHUK gizarteari ematen dion zerbitzu publikoa hobetzen laguntzen dugula irizten diogulako.


Zazpigarren grafikoan, datu horiek aurreko urteetakoekin alderatuta ematen ditugu. Ikus daitekeenez, ikasleen kolektiboak planteatutako aztergai kopuruaren beherakada nabarmentzen da; hori dela eta, 2019an kolektibo horrekiko jarrera proaktiboagoa eduki beharko dugu. Irakasle-ikertzaileek eta "Beste batzuek" planteatutako aztergaiak apur bat jaitsi dira, iazko datuetatik gehiegi aldendu gabe; oster, AZPko langileek planteatutako aztergaiak gora egin dute, azken bi urteetako beheranzko joera irauliz.



Zortzigarren grafikoan irakasle-ikertzaileen, AZPko langileen eta ikasleen datuak aurkezten dira, ehunekotan. Joan den ikasturtearekin alderatuta ikasleek planteatutako kasuetan izandako beherakadak irakasle-ikertzaileen eta ikasleen kolektiboek planteatutako kasuen arteko erlazioa aurreko ikasturteetan hautemandako joeran egonkortzea ekarri du berriro, hamar ehunekoaren inguruko aldean kokatuta.




Bestalde, 2018an, ikasleek planteatutako 57 gaien artean, 45 graduoko ikasleek aurkeztu dituzte; 11, graduondoko ikasleek; eta, 1, Esperientzia Geletako ikasleek (9. grafikoa).




Esperientzia Geletako ikasleen kolektiboan izan ezik, gainerako ikasleek iaiz baino kasu gutxiago planteatu dituzte, eta graduoko ikasleei dagokienez, batez bestekoaren barruan gaude, erakundearen 7 urteko ibilbidea aintzat hartuta.

1.5 Aztergaiak campusen arabera

Jaso ditugun 120 aztergaietatik, 33 Gipuzkoako Campusetik iritsi dira; 69, Bizkaiko Campusetik; eta 18, Arabako Campusetik (dagoeneko esan dugunez, UPV/EHUkoak ez diren pertsonen beste 18 aztergai iritsi zaizkigu). Datu horiek aurreko urteetakoekin alderatuz gero (10. grafikoa), hainbat ondorio atera ditzakegu: a) 2014. urtera arte kasuak igo ziren campus guztietan; b) 2014. urtetik aurrera aztergaiak behera egin zuten Bizkaiko eta Arabako campusetan, eta gora, berriz, Gipuzkoakoan; c) 2016. urtetik aurrera igoerak hauteman dira hiru campusetan, baina azken urtean kasuek nabarmen egin dute behera Gipuzkoan.



Hamaikagarren grafikoak datu horiek ehunekotan ematen dizkigu. Egin daitekeen irakurketa da campus bakoitzeko aztergaien kopurua hurbil dagoela campusak bakoitzak gizarte errealitatean ehunekoetan duen ordezkapenetik. Hala, Bizkaiko Campusetik eskatu zaizkio jarduera gehien Aldezlearen zerbitzuari; gero, Gipuzkoakoa dago, eta azkenik, Arabakoa.



1.6. Aztergaiak ikastegien eta zerbitzuen arabera

Lehen taulan, Aldezlearen bulegora laguntza eske jo duten pertsonen ikastegien eta zerbitzuen zerrenda jaso dugu. Bertan, aztergai mota guztiak zenbatzen dira, nola kegak (gero baietsiak izan ala ez), hala kontsultak eta bitartekaritza eskaerak.

Hurrengo taularen datuak erlatibizatu behar direla aipatu behar dugu, soilik aztergaia nondik datorren adierazteko balio baitute, hortik kanpo ondorioak ateratzeko aukerarik eman gabe. Aztergai gehienak ikastegi handienetan biltzen dira, eskuarki, eta subjektuen pluraltasun bati eragiten dioten aztergaiak izateak ere eragina izaten du; hortaz, ikastegi edo zerbitzu beraren estatistikak edo datuak asko alda daitezke urte batetik bestera askotariko faktoreen eraginez.


1. taula. Aztergaiak planteatu dituzten pertsonen ikastegiak eta zerbitzuak

Ikastegiak eta Zerbitzuak	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Arabako Biblioteka	-	-	-	1	-	-	-
Arkitekturako GET	4	6	4	2	-	-	6
Arte Ederren Fakultatea	1	5	1	4	2	1	2
Berrikuntzaren, Gizarte Konp. eta Kultur. arloko Errek.	-	-	-	-	-	1	1
Bilboko Hezkuntza F.	-	-	-	-	-	-	4
Bilboko Irakasleen UE	5	3	4	4	7	7	-
Bilboko Merkataritza Ganbera UE	-	-	-	2	-	1	-
Campuseko Gerenteordetza	-	2	-	-	-	-	2
Ekonomia eta Enpresa F.	5	24	5	3	5	13	11
Enplegu Gunea	-	-	-	-	-	1	1
Errektoregoa	1	-	-	-	-	-	-
Ezgaitasunak dituzten Pertsonentzako Zerbitzua	-	-	-	-	1	1	-
Farmazia F.	2	4	4	1	2	2	1
Gasteizko Erizaintzako UE	-	1	1	-	2	2	1
Gasteizko Ingeniaritzako UE	2	4	6	6	2	2	1
Gerentzia	-	-	1	-	-	-	-
Gipuzkoako Biblioteka	-	1	-	4	2	1	2
Gipuzkoako Esperientzia Gelak	-	-	1	-	7	-	1
Gipuzkoako Ingeniaritza E.	2	4	2	1	2	10	4
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F.	6	8	17	9	2	6	5
Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errek.	-	1	-	-	-	-	-
Graduko eta Graduondoko Ikasketen arloko Errek.	-	-	-	-	-	1	-
Hezkuntza, Filosofia eta Antropologia F.	1	7	10	11	9	21	7
Hezkuntza eta Kirol F.	3	1	4	6	3	4	7
Idazkaritza Nagusia	-	1	2	1	-	-	-
Ikasleen kontseilua	2	3	1	1	-	-	-
Korta Eraikina	-	-	-	1	-	-	-
Bilboko Ingeniaritza E.	15	13	13	12	6	11	14
Ikasleen, Enpleguaren eta Gizarte Erant. arloko Errek.	-	-	-	1	-	-	-
Ikerketaren arloko Errektoreordetza	-	-	-	-	1	-	-
IKT Gerenteordetza	3	-	-	1	2	2	1
Ikuskaritza Zerbitzua	-	-	-	-	1	-	-
IMHko Ingeniaritza Dualaren UE	-	-	-	4	6	7	-
Informatika F.	-	2	4	2	-	-	3
Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza	-	-	-	-	-	-	1
Kimika F.	-	-	1	-	-	-	1
Kirol Zerbitzua	-	-	-	-	1	1	-
Lan Harreman eta Gizarte Langintza F.	1	4	1	-	1	-	-
Letren F.	2	6	16	7	3	3	7
Master eta Doktorego Eskola	-	1	1	5	6	4	2
Materialen Fisika Zentroa	-	-	-	-	1	-	-
Medikuntza eta Erizaintza F.	13	6	17	12	19	15	17
Psikologia F.	5	4	1	6	9	10	5
Pertsonaleko Gerenteordetza	-	-	1	2	-	-	-
Prebentzio Zerbitzua	-	-	-	-	-	1	-
Zientzia eta Teknologia F.	3	6	11	7	4	7	7
Zuzenbide F.	6	7	9	9	5	9	6
Beste batzuk	15	16	26	14	8	20	18
Guztira	97	140*	164	139	119**	164	138

* Hiru aztergai ikastegi edo zerbitzu bat baino gehiagoko pertsonak planteatu zituzten. Horregatik, zutabe horren emaitza osoa 137 izan beharrean, 140 da. ** Bi aztergai ikaste edo zerbitzu desberdinetako pertsonak planteatu zituzten. Horregatik, zutabe honen guztizkoa 119 da, 117 izan ordez.

1.7. Aztergai motak

Aztergai motei dagokienez, 2018an, 102 kontsulta, 33 kexa eta 3 bitartekaritza eskaera jaso ditugu. Hamabigarren grafikoan, datu horiek aurreko urteetakoekin alderatu ditzakegu.



Ikus daitekeenez, jaitiera izan da aztergai mota guztietan.

Aztergai motek bost urteetan izandako eboluzioa aztertzen badugu, lehenik eta behin, bitartekaritzari buruzko datuen egonkortasuna nabarmentzen da, azken urte honetan nabarmen jaitsi bada ere. Bigarrenez, joan den urtearekin alderatuta kontsulter kopuruak behera egin badu ere, kontsulta gehien planteatu dizkiguten bigarren urtea izan da hau. Kexek, bestalde, beheranzko bidean jarraitzen dute, 2015. urteaz geroztik. Horri dagokionez, lehenko urtean aurreratu genuenaren ildotik, adierazi behar dugu kontsulta oso sistema erabilgarri bihurtu dela, aurkezten zaizkigun kasu asko bideratzeko. Prozedura arin bat da, azkar analizatzea, ikertzea eta kontrastatzea eskatzen duena, planteatzen zaigun gaiari konponbide egoki bat emateko; horrela, kexaren prozedura, zeina burokratikoagoa baita, fase dokumental landuagoak eskatzen dituzten egoeretarako uzten da.

Lan arloko jazarpen kexak konpontzeari buruzko hitzarmen berriaren arabera (2014ko abuztuaren 27ko EHAA), horrelako gaiak aztertzea eta ebatzea ez dagokio jada Aldezleari, Arbitraje Batzorde espezifiko bati baizik. Aldezlearen zerbitzuak jazarpen izan daitekeen jardueraren bat hautemango balu, Arbitraje Batzordera bideratuko luke. Edonola ere, akordioak berak honako hau aurreikusten du: "Nolanahi ere, posible denean eta aldeak horretarako prest daudenean, erraztasunak emango dira bi aldeentzat egokia izango den irtenbide bat aurkitzeko, era estraofizialean edo Aldezlearen bitartekaritzaren bidez (erakunde horren Funtzionamendu Erregelamenduaren 18. artikuluan jasotako prozedura erabilita)".


1.7.1. Kolektiboek planteaturiko aztergai motak

Jarraian, 13., 14. eta 15. grafikoetan aztergai mota (kontsulta, kexu eta bitartekaritza eskaera) bakoitzaren bilakaeraren berri ematen dugu, kolektiboka.

Hamahirugarren grafikoan ikus daitekeenez, kontsulten kopuruak gora egin du azken urtean kolektibo guztietan, ikasleenean izan ezik, non jaitiera nabarmena eman baita, nahiz eta ikasleek bulegoan kontsulta gehien egin dituzten bigarren urtea izan den 2018a. Edonola ere, kolektibo horri lotuta, oraingoa baino politika proaktiboagoa jarriko da martxan; izan ere, prozedura horren bidez, unibertsitateko kideak orientatzeko eta informatzeko helburu bikoitza betetzen da. Kasu askotan, kudeaketa bizkorrak ere egiten dira, planteatutako arazoak konpontze aldera.


Nabarmentzekoa da AZPko langileen kolektiboan kontsultak nabarmen areagotu direla, beste urte batzuekin alderatuta, eta igoerak eman dira ere irakasle-ikertzaileen eta "Beste batzuen" kolektiboetan. Hiru kolektibo horietan kontsulta kopuru handiena jaso da, erakunde hau martxan jarri zenetik.

Ikasleei lotuta gehien ematen diren aztergaiei dagokienez, ikusten dugu nagusi direla ebaluazioari, matrikulazioari, prezio publikoei, gradu amaierako lanei eta haien tutoretzari lotutako kontsultak.




Kexei dagokienez –ikus 14. grafikoa–, aurten kolektibo guztietan jaitsi dira, joan den urtearekin alderatuta; salbuespena irakasle-ikertzaileen kolektiboa (non apur bat igo baitira) izan da, eta AZPko langileena berdin mantendu da. Zazpi urteetan kekek izandako eboluzioa aztertzen badugu, gorabeherak hautematen dira, baina beharrezko joera da nagusi.

Unibertsitateko kideren batek unibertsitate organo batek hartutako erabaki batekin desadostasunak dituenean planteatzen dira kekek, kide horren iritziz erabaki horrek bere eskubideren bat urratzen duelako edo bere askatasunen bat justifikaziorik edo neurritz kanpo murrizten duelako.





Bitartekaritza eskaerei dagokienez (15. grafikoa), 2018an 3 bitartekaritza eskaera eman dira, irakasle-ikertzaileei, AZPko langileei eta ikasleei lotuta. Oro har, horrelako eskaerak aurkezten dituzten pertsonak zerbitzuak ematen dituzte unibertsitatean, eta arrazoiren batengatik lan inguruan egoera gatazkatsu bat bizi dute. Aldezlearengana jotzen dute, eraginpeko aldeak elkartzeko guneak eman ditzan, konfidentziasun esparru batean, eta horren bidez, konponbide elkarrizketatu bat bilatu nahi dute, lan giroa hobetzeko eta lan ingurune on bat edukitzeko. AZPko langileen eskaerak lankideen arteko gatazkak izan ditu oinarrian; irakasle-ikertzaileen eskaerak, ikerlan baten egiletzari lotutako gaiak, eta beste kasuaren eskaerak, ikasle eta irakasle baten arteko gatazka.




Argibideak: 2012. eta 2015. urteen bitartean, lerro berdea, AZPko langileei dagokiena, bera estaltzen duen horiaren berdina izan da.

1.7.2. Emakumeek eta gizonen planteaturiko aztergai motak

Jarraian, aztergaiak aurkezten ditugu generoaren arabera banatuta. Lehen grafikoak (16. grafikoa) erakusten digunez, emakumeek gizonen baino kontsulta gehiago egiten dituzte oraindik. Kexei dagokienez (17. grafikoa), badirudi alderantzizko joera errotzen ari dela; izan ere, 2016. urtean izan ezik, gizonen emakumeek baino kexa gehiago aurkeztu dituzte. 2018. urtean, joera orokorrari eutsi zaio, eta kexa gehiago eman dira gizonen artean emakumeen artean baino. Bitartekaritza eskaerei dagokienez (18. grafikoa), eboluzio ikuspegiak erakusten digu gizonen eta emakumeen antzeko datuak dituztela, baina azken hiru urteetan emakumeek gizonen baino bitartekaritza eskaera gehiago aurkeztu dituzte.





1.8. Kolektibo bakoitzak planteatutako gaiak

Kolektiboak planteatutako arazo motak (edozein eratakoak, ez soilik keaxak) zehaztasun handiagoz ezagutzera emateko asmoz, jarraian, hurrenez hurren, ikasleei, irakasle-ikertzaileei, AZPko langileei eta "Beste batzuei" dagozkien lau taula aurkezten ditugu (2, 3, 4 eta 5. taula).

Taulak kategorien eta gai espezifikoaren arabera daude antolatuta, aurreko urteetako txostenetan jasotako irizpideari jarraituta. Edonola ere, metatutako esperientzia oinarri hartuta, txosten honetan aldaketa txikiren bat txertatu dugu kategorien sisteman; esate baterako, azken bost urteetan ia maiztasunik izan ez duten kategoriak kendu, eta horiei zegozkien kasuak "Bestelakoak" kategorian sartu ditugu. Hori dela eta, desberdintasun txikiren bat hauteman daiteke taula hauetako urteko datuen eta dagozkion txostenetan aurkeztutakoaren artean.

Tauletan, hondo urdinez nabarmentzen dira gutxienez lau urtez errepikatu diren gaiak. Bestalde, horietan guztietan parentesi artean adierazten da zenbat kasutan esku hartu behar izan duen aldezelek –gaiaren edukia edozein zela ere– zegokion organoak ez erantzuteagatik. Horrelako kasuetan, sakoneko gaia prozedurazko alderdiekin gurutzatzen da, hala nola idatzi edo errekurtsio bati epean ez erantzutea; horrelakoetan, gaia funtsezko kategoria nagusiaren barruan sartzen da.

Ikasleen kolektiboari dagozkion bigarren taulari erreparatzen badiogu, 2018an gehien errepikatu diren gaiak honako hauek izan dira:

- "Ikasleen ebaluazioa": oraindik ere gai gatazkatsuenetako bat da. Puntu horretan gai ugari biltzen dira, hala nola bosgarren eta seigarren deialdiko epaimahaien ebaluazioa, justifikatutako arrazoiengatik aldatutako azterketen datari lotutako gaiak, irakasgai baten kalifikazioa berrikusteko eskubidearen gauzapena, larunbatetan azterketa egitera joateko derrigortasuna, practicumaren ebaluazioa, etab.
- "Irakaskuntzaren kudeaketa": epigrafe horren barruan hainbat alderdi sartzen dira, hala nola irakasgai baten edukiarekin edo hura emateko moduarekin ados ez egotea, irakaskuntza metodologian aldaketak sartzea, irakasgai bereko taldeen artean koordinaziorik ez izatea, irakasleak berandu kontratatzea...Gai horiei dagokienez, garrantzitsua da nabarmentzea, berriro ere, maila eta titulua koordinatzeko lanaren garrantzia, lan kargen, proben eta ebaluazioen banaketa orekatu bat lortzeko.
- "Matrikula": matrikulatzea ekintza bat da, pertsona bat UPV/EHUrekin lotzeko balio duena, ikasketa batzuetan izena emanda eta dagozkion tasak eta prezio publikoak ordainduta. Alderdi horri lotutako hainbat gai planteatu izan dira, hala nola beka bat ukatu ondoren ordainketa epeei aurre egiteko zailtasunak (horrelakoetan ikasleak unibertsitatearen gizarte funtsaren kudeaketa sistemara bideratu dira), lehenetsitako taldean matrikulatzeko arazoak, hurrengo ikasturtean matrikulatzeko ezintasunak giltza irakasgaiak ez gainditzeagatik, etab.
- "Baliozkotzeak eta kredituak aitortzea": azken urte honetan, berriro ere, beste titulu edo zentro batean egindako irakasgai bat ez aitortzearen gaia planteatu zaigu. Baliozkotzea administrazio egintza bat da, txosten edo irizpen tekniko baten edukia aztertu ondoren egiten dena; hortaz, aldezeak tartean sartzeko aukera oso gutxi izaten ditu; hala, prozedura araudiaren arabera egin ote den, arauak ezarritako baldintza formalak barne, eta erabaki duen organoa eskuduna ote den azter dezake. Horrelako erabakietan aginduzkoa da ere arrazoiketa argia eta nahikoa izatea, baldin eta eskubideak murrizten edo kaltetzen badituzte.
- "Irakasleen portaera": horri dagokionez, irakasleen portaera desegokiari lotutako alderdiak planteatu izan dira, ikasgelan egindako iruzkinei edo ikasleak tratatzeko moduari lotuta; gatazkak sortu dira, besteak beste, gradu amaierako lanen zuzendariekiko harremanetan, ikasle baten azterketaren zatiak agertzen ziren Twitter-eko iruzkinetan, etab.

2. taula. Ikasleek planteatutako aztergai motak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Arautegia aplikatzeko modua	-	6	-	-	-	-	1
Arautegia ez betetzea	-	-	1	-	-	-	-
Arazoak agintariekin	1	-	2	-	-	-	-
Arazoak ikaskideekin	-	-	-	-	6	-	-
Baliozkotzeak eta kredituak aitortzea	-	6 (1)	1	1	2	4	2
Bekak	-	3 (1)	3	4 (1)	1	4	4
Datuak babestea	1	-	-	1	-	-	-
Diziplina arautegia	1	-	1	-	1	-	-
Doktorego tesia	2	-	1	5	2	-	1
Ebaluazio berezia	6	4	3	5	3 (1)	-	1
Espedientea lekuz aldatzea	-	-	-	-	-	2	1
Euskarazko arreta	-	-	-	-	1	1	-
Euskarazko irakaskuntza	-	-	2	-	-	-	1
Ezgaitasunaren arreta	-	-	-	-	1	1	-
Familia kontziliazioa	-	-	-	-	1	-	-
Genero indarkeria	-	-	1	-	-	-	-
Gradu/Master amaierako lana	1	-	4	2	1	3	3
Gradura egokitzea	2	3	3	-	-	-	-
Greba	-	-	2	-	-	-	-
Ikasketetarako sarbidea	5 (1)	1 (1)	-	1	1	2	2
Ikaskideen portaera	-	1	1	-	1	2	1
Ikasleen ebaluazioa	7 (1)	10	11	16	14	33	8
Ikasleen ordezkaritza	-	2	3	1	1	-	1
Ikasleentzako zerbitzuak	-	-	-	-	-	-	2
Ikastegiko zuzendaritzaren portaera	-	-	1	-	-	-	-
Intimitaterako eskubidea	-	1	-	-	-	-	1
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	3	10	15	7	9	4
Irakasleen portaera	1	4	4	2	1	2	5
Jendaurreko zerbitzua	-	3	-	2	-	-	-
Kanpoko praktikak	-	2	3	2	2	2	3
Lan baldintzak	-	-	-	-	-	3	-
Matrikula	1	4	5	3	4	7	6
Matrikula balio gabetzea	-	2	-	1	-	-	1
Mugikortasuna	-	-	2	1	-	-	4
Ondarezko erantzukizuna	-	-	-	-	-	1	-
Presoentzako arreta	-	-	-	1	1 (1)	-	-
Prezio publikoak	3 (1)	2	1	2	2	2	2
Tituluak eta ziurtagiriak	-	1	1 (1)	2	-	1	1
Tratu baztertzaila	-	-	1	-	-	1	-
UPV/EHUn Jarraitzeko Arauak	-	-	-	-	-	-	2
Zerbitzuen portaera	-	2	-	-	-	-	-
Bestelakoak	2	2	1	-	1	1	-
Guztira	33 (3)	62 (3)	68 (1)	67 (1)	54 (2)	81(0)	57(0)

Irakasle-ikertzaileen kasuan (3. taula), 2018an gehien errepikatutako gaiak honako hauek izan ziren: "Irakaslanaren banaketa", "Plazak eta ordezkapen poltsak" eta "Lankideen arteko gatazkak". Behin eta berriro agertzen diren gaiak dira guztiak, aurten ere hauteman ditugunak.

- "Irakaslana banatzea": alderdi horri dagokionez, kontuan hartu behar da banaketa egiteko prozedura araudi batez araututa dagoela, araudi horrek irakasle-ikertzaileen eskubideak jasotzen dituela eta ezagutu egin behar dela. Araudiak ondorioak izan behar ditu ere irakasleen artean lehendik banatutako irakaslanean gerta daitezkeen aldaketetan, prozedura honen bidez hura saihesteko aukerarik izan gabe. Nabarmendu behar dugu, halaber, lehentasun eskubideen gauzapenak bateragarria izan behar duela banakako aukerak egin ahal izateko eta erraztasunak eman behar direla langile sartu berrien irakaskuntza eta ikerketa ibilbidea bultzatzeko; izan ere, oro har, horiek izaten dute lehentasun gutxien irakasgaiak hautatzeko unean, eta, zenbait kasutan, irakaslana azken orduan banatzen zaie eta hainbat talde partekatu behar izaten dituzte beste irakasle batzuekin. Familia kontziliazioa aintzat hartzeak ere garrantzitsua izan beharko luke, saileko kontseiluak irakaslana banatzen duenean.
- "Plazak eta ordezkapen poltsak": gai honek gora egiten jarraitzen du, azken urteetan hasitako ildoari jarraituz. Planteatu zaizkigun alderdiak lotuta daude; batez ere, sailek izendatutako epaimahaiek deialdietan eta oinarrietan ezarritako balorazio irizpideekin. Epaimahai kalifikatzailearen epai teknikoa ezin da berrikusi (diskrezionaltasun teknikoaren arloan sartzen baita); beraz, Aldezlearen zerbitzura iritsi den kasuetan, aztertu da ea deialdiaren arauzko alderdiak zuzen bete diren, ea prozedura zurruntasunez bete den eta, bereziki, ea nahikoa arrazoituta dagoen, administrazio egintza diskrezional bat izanik.
- "Lankideen arteko gatazkak": arlo honen barruan askotariko gaiak sartzen dira, eta irakaskuntzan, kudeaketa arloan edo beste gai batzuetan izaten diren irizpide desberdinei lotuta egoten dira. Item hau nabarmen igo da aurreko ikasturtearekin alderatuta, baina kopuruak askoz ere txikiagoak dira aurreko ikasturteetan planteatutakoak baino.

3. taula. Irakasle-ikertzaileen aztergaiak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Aplikazio informatikoen funtzionamendua	-	-	-	-	-	-	1
Arautegia aplikatzeko modua	-	4	2	-	-	2	2
Arazoak agintariekin	1	-	1	-	-	-	-
Arazoak lankideekin	4	17	13	5	3	3	6
Azpiegiturak	-	1	-	-	-	-	-
Baimenak	-	-	-	-	-	-	1
Barne kontrola	-	-	-	1	-	-	-
Bateraezintasunak	-	-	-	-	-	1	2
Bekak	-	-	-	1 (1)	1	2	-
Burokrazia	-	-	-	-	2	-	-
Datuak babestea	-	-	-	1	-	-	1
Diziplina arautegia	-	-	-	-	-	2	2
Docentiaz	-	-	-	1	-	-	-
Doktorego tesia	-	-	3 (1)	1	-	2	1
Ebaluazio Epaimahaiak hautatzea	-	-	1	-	-	-	-
Erosketak	-	-	-	1	-	-	-
Errektoregoaren portaera	-	-	1	1	-	-	-
Erretiroa	1	-	-	-	-	-	-
Etika akademikoa (ikasleak)	-	-	1	1	-	-	1
Etika zientifikoa (irakasleak)	1	-	1 (1)	-	-	-	1
Euskarazko arreta	-	-	-	-	1	-	-
Euskarazko irakaskuntza	-	-	-	-	-	-	1
Familia kontziliazioa	1	-	-	1	-	1	1
GAUREn arazoak	1	1	-	-	-	-	-
Gradura egokitzea	1	-	-	-	-	-	-
Greba	-	-	-	-	1	-	-
Hierarkian gorago dagoenaren portaera	-	-	-	-	2	-	-
Ikasleen ebaluazioa	-	2 (1)	2 (1)	-	3	3	3
Ikasleen portaera	1	3	2	2	2	2	2
Ikastegiko zuzendariaren portaera	-	-	1	-	-	-	-
Ikerketa proiektuak	1	1	-	-	-	-	-
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	2	-	-	1	1
Irakaslanaren banatzea	5	3	6	4 (1)	8 (2)	5	7 (1)
Irakaslanaren ebaluazioa	-	-	-	-	-	2	-
Irakasleen ebaluazioa	-	-	-	-	1	-	-
Irakasleen Hobekuntzarako Plana	-	-	2	-	-	1(1)	-
Irakasleen portaera	-	3	-	-	-	-	2
JAP/Kredituen aitortza	2 (1)	2	-	-	2	-	-
Jazarpena/Jazarpen portaerak	8	2 (1)	2	2	1	-	-
Jendaurreko arreta	-	-	-	-	-	1	1
Lan baldintzak	3	2	3	2	6	10 (1)	1
Lanen ebaluazio etikoa	-	-	-	-	1	-	-
Matrikula baliogabetzea	-	-	-	-	-	1	1
Merezimenduen ebaluazioa	-	-	-	-	2 (1)	-	-
Ordezkaritza organoaren portaera	-	-	-	1	-	-	-
Osagarri gehigarriak	1	2	1	3	-	3	-
PIF ordainsariak	-	1	2	-	-	-	-
Plazak eta ordezkapen poltsak	4 (1)	5 (1)	4 (3)	7 (1)	2	8	6
Presoentzako arreta	-	-	-	1	-	-	-
Prezio publikoak	1	-	-	-	-	-	-
Saileko zuzendariaren portaera	-	-	2	2	1	-	-
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	-	-	1	-	-
Tratu berdintasuna	-	-	1	-	-	-	2
Zerbitzu ordainak	-	-	-	-	-	-	-
Zerbitzuen portaera	1	-	-	-	-	-	-
Bestelakoak	4	2	3	4	1	1	2
Guztira	40 (2)	50 (3)	56 (6)	42 (3)	41 (3)	51 (2)	48 (1)

AZPko langileei dagokienez (4. taula), 2018. urtean "lan baldintzak" eta "Plazak/lekualdaketen lehiaketa" nabarmendu dira gehien.

- "Lan baldintzak": atal honen barruan, AZPko langileen lanaldien kartara sartzeari buruz planteatutako kegak sartu ditugu, kolektibo batzuek ez baitute horiek eskuratzeko aukera; era berean, kontratu betebeharrak betetzeari lotutako hainbat kontsulta ere sartu ditugu.
- "Hierarkian gorago dagoenaren portaera": gai multzo honen barruan, zerbitzuetan lana antolatzeko moduaren inguruko desadostasunak planteatzen dira.
- "Plazak/lekualdatze lehiaketak": ohiko gai bat da kolektibo honetan. Ordezkapen poltsen kudeaketa araudia betetzeari lotutako kontsultak eta kegak biltzen dira, baita lanpostuen zerrrendaren aldaketari lotutakoak ere.

4. taula. AZPko langileen aztergaiak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Arautegia aplikatzeko modua	-	-	1	-	-	-	2
Arautegia ez betetzea	-	1	-	1	-	-	-
Arazoak agintariekin	-	-	-	1	-	-	-
Arazoak lankideekin	-	1	-	-	1	-	-
Azpiegiturak	-	-	1	-	-	-	-
Bateraezintasunak	-	-	-	-	-	-	1
Datuak babestea	-	-	-	-	-	-	1
Diziplina arautegia	-	-	-	-	1	-	-
Errektoregoaren portaera	-	2 (1)	-	-	-	-	-
Erretiroa	-	1	-	1 (1)	-	-	-
Euskarazko irakaskuntza	-	-	-	-	1	-	-
Hierarkian gorago dagoenaren portaera	-	-	2	1	2	1	2
Ikasleen portaera	-	-	-	1	-	-	1
Informazioa eskuratzeko eskubidea	2	-	2	2 (2)	-	-	-
Intimitaterako eskubidea	-	-	-	-	-	-	1
Irakasleen portaera	-	-	-	-	1	-	-
Jazarpena/Jazarpen portaerak	1	-	1	-	-	-	-
Lan baldintzak	4	2	2 (1)	5 (1)	6 (1)	3 (1)	4
Lankideen portaera	-	-	-	-	-	4	-
Merezimenduen ebaluazioa	2	-	-	1 (1)	-	1	-
Plazak eta lekualdatze lehiaketa	2	1	3 (1)	2	-	3(1)	2
Prezio publikoak	-	-	-	-	1	-	-
Saileko zuzendariaren portaera	-	-	1	-	-	-	-
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	-	-	-	-	1
Bestelakoak	-	1	1	1	1	-	-
Guztira	11 (0)	9 (1)	14 (2)	16 (5)	14 (1)	12 (2)	15 (0)

Azkenik, "Beste batzuk" (5. taula) kategorian, "Ikasketarako sarbidea", "Bekak", "Plazak/Ordezkapen poltsak" eta "Tituluak eta ziurtagiriak" gaietako kasuak aurkeztu dira.

- "Ikasketarako sarbidea": sarbidea onartu ez den kasuekiko desadostasunak biltzen dira multzo honetan.
- "Bekak": aurten, graduondoko ikasketak egiteko nazioarteko beka bat legezko epean eta eran ez ordaintzeari lotutako arazoak bildu dira epigrafe honetan.
- "Plazak/ordezkapen poltsak": epigrafe honetan, sailek izendatutako epaimahaien merezimenduen baloraziekiko deitutako plazen edo ordezkapen plazen hautagaiak alegatzen dituzten desadostasunei buruzko kasuak sartzen dira.
- "Tituluak eta ziurtagiriak": hemen, UPV/EHUen egindako ikasketen ziurtagirien eskaerari lotutako gaiak sartzen dira.

5. taula. "Beste batzuk" kategoriaren aztergaiak

Gaia	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Arautegia aplikatzeko modua	-	-	-	-	-	-	1
Arazoak agintariekin	-	1 (1)	-	-	-	-	-
Bekak	3 (1)	1	-	1	2	2	1
Bestelakoak	-	1	2	2 (1)	-	3	2
Datuak babestea	-	-	-	1	-	-	-
Diziplina arautegia	-	-	-	-	1	1	1
Erretiroa	-	1	-	-	-	-	-
Espedientea lekuz aldatzea	-	-	-	-	-	1	-
Etika zientifikoa	-	-	-	-	-	1	-
Gardentasuna eta gobernu ona	-	-	-	-	-	1	-
GAUren arazoak	-	-	1	-	-	-	-
Gradu/Master amaierako lana	-	-	-	-	1	-	-
Gradura egokitzea	-	-	-	-	1	-	-
Ikasketarako sarbidea	-	3	7	4	1	3	3
Ikasleen ebaluazioa	-	-	1	-	-	-	-
Ikasleen portaera	-	-	1	-	-	-	-
Informazioa eskuratzeko eskubidea	-	-	-	-	-	-	1
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	1	-	-	-	-
Jazarpena/Jazarpen portaerak	-	-	2	1 (1)	-	-	-
Kanpoko praktikak	-	-	-	-	-	-	1
Kontratazioa	-	1	-	-	-	-	-
Lan baldintzak	-	-	1	-	-	1	-
Matrikula	-	-	2	-	-	-	-
Matrikula baliogabetzea	-	-	-	-	-	1	-
Merezimenduen ebaluazioa	3	-	-	-	-	-	-
Plazak/Lekualdatze lehiaketak	-	-	-	-	-	1	-
Plazak/Ordezkapen poltsak	7 (2)	6	4 (1)	2	1	-	3
Presoentzako arreta	-	-	-	1	-	-	-
Prezio publikoak	-	-	1	-	-	1	-
Tituluak eta ziurtagiriak	-	1	-	1	1	4 (1)	3
Unibertsitatera sartzeko probak	-	-	3	1	-	-	2
Guztira	13 (3)	15 (1)	26 (1)	14 (2)	8 (0)	20 (1)	18 (0)

1.9. Bulegoaren esku hartzea

Bulegoan planteatu diren 138 aztergaien artetik, kontsulta guztiek (102, jada esan dugunez) erantzun egokia izan zuten. Era berean, 3 bitartekaritza eskaerei erantzun zitzairen.

Aurkeztutako 33 kexen artetik, 3 atzera bota ziren. Aldezleak kexak atzera bota ditzake askotariko arrazoirengatik: kexak aldezlearen zereginekin loturarik ez duela kontsideratzen delako, lehendik prozedura arrunta agortu ez delako (premiazkoak izan gabe), kexaren xede den jarduera zehatza zuzena izan dela ulertzen delako, gutxieneko oinarri arrazoitua ez dagoelako, organo eskudunek beren zereginak betetzean hartutako unibertsitate politikako erabakiekiko desadostasunak adierazten dituztelako, erabaki horiek eskubiderik urratzen ez dituztenean, gaia dagoeneko konponduta dagoelako, edo aldezleak gaiaren gaineko eskumenik ez duelako. 2018. urtean, kexa guztiak atzera bota ziren lehendik prozedura arrunta agortu gabe zegoelako.

Beraz, 30 kexa onartu ziren (% 90,9). Horien artetik, 16 ezetsi ziren, azterketa xehe bat egin ondoren Zuzenbideak kexaren nahiak babesten ez zituela kontsideratu zelako. Beraz, azkenean 14 kexa baietsi ziren (onartutakoen % 46,7). Seigarren taulan, datu horiek aurreko urteetakoekin konparatzen dira.

Hala, orotara jasotako kexen kopurua gutxitu da aurrean, baina onartutako kexen ehunekoa handiagoa izan da, nahiz eta onetsitako kexen kopurua apur bat jaitsi den.

6. taula. Jasotako, onartutako eta baietsitako kexak

	Jasoak	Onartuak (jasotakoen %)	Baietsiak (onartutakoen %)
2012	72	49 (% 68,1)	34 (% 69,4)
2013	65	37 (% 56,9)	27 (% 73,0)
2014	74	37 (% 50,0)	21 (% 56,8)
2015	50	32 (% 64,0)	20 (% 62,5)
2016	47	26 (% 55,3)	17 (% 65,4)
2017	41	37 (% 90,2)	18 (% 48,7)
2018	33	30 (% 90,9)	14 (% 46,7)
Guztira	382	248 (% 64,9)	151 (% 60,9)

2018an txikia izan da atzera botatutako kexen kopurua. Soilik hiru izan dira. Horrek 2016ra arte gertatutakoarekin kontrastatzen du, ordura arte ohikoa izan baitzen kexen kopuru handi bat (heren bat edo erdia) atzera botatzea. Edonola ere, atzera botatutako kopurua nahikoa txikia bada ere, horren arrazoiak ohikoak izan dira, bereziki: horretarako ezarritako prozedura arrunta lehendik ez agortzea.

Gogoratu nahi dugu, Aldezlearen Araudiaren arabera, kexak edo erreklamazioak ez direla onartuko "unibertsitate araudi edo protokoloetan ezarritako urrats eta errekurso guztiak agortu gabe daudenean" (15.5.g) art.). Artikulu berak jarraian ezartzen duenez, aldezleak soilik azken buruan esku hartuko du, bide arautu guztiak amaituta inolako erantzunik izan ez denean, edo erantzuna desegokitzat hartzen denean eskubide edo interes legitimoak urratzeagatik. Aldezleak salbuespenetan esku har dezake soilik ezarritako prozedura agortu gabe duten gaietan. Premia oso bereziko kasuak izango lirateke.

Gure bulegoak, bide edo prozedura arrunta agortu ez bada, salbuespenetan (premiazko gai bat denean) esku hartzen du bakarrik, erakundearen Araudiaren arabera. 2018. urtean, iaz bezala, bi aldiz esku hartu behar izan dugu bide arruntak agortu baino lehen, gaia premiazkoa zelako betiere; dena dela, guri dagokigun erakunde errespetuak organo eskudunaren ordezkari jardutea eragozten digu, eta, gehienez ere, funtsezkotzat jotzen dugun alderdiren bat nabarmentzen dugu, organo eskudunak kontsideratu edo baloratu dezan.

1.9.1. Baietsitako kexen gaiak

Zazpigarren taulak baietsi diren kexen gaiak biltzen ditu. Bertan, hondo urdin argiz nabarmentzen dira gutxienez hiru urtetan errepikatu direnak.

Ikasleei dagokienez, baietsitako kexak arlo hauetan eman dira: "irakasleen portaera", "intimitaterako eskubidea", eta "irakaskuntzaren kudeaketa". Irakasle-ikertzaileei dagokionez, kexen gaiak honako hauek izan dira: "irakaslanaren banaketa" "jendaurreko arreta", "irakasleen portaera", "arazoak lankideekin", "tratu berdintasuna" eta "baimenak". AZPko langileen sektorean, baietsitako kexak arlo hauetan kokatu dira: "lan baldintzak", "araudia aplikatzeko modua" eta "bateraezintasunak". Eta, amaitzeko, "Beste batzuen" sektorean (UPV/EHUkoak ez diren pertsonak) Gipuzkoako Campuseko instalazio baten funtzionamendu okerrari buruzko kexa bat baietsi zen.

7. taula. Baietsitako kexen gaiak

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	Guztira
Arautegia aplikatzeko modua	-	2	-	-	-	-	-	2
Arautegia ez betetzea	-	-	1	-	-	-	-	1
Arazoak ikaskideekin	-	-	-	-	2	1	-	3
Baliozkotzeak eta kredituak aitortzea	-	2 (1)	-	-	-	-	-	2 (1)
Bekak	-	1 (1)	-	1 (1)	-	-	-	2 (2)
Doktorego tesia	-	-	1	-	-	-	-	1
Ebaluazio berezia	3	-	-	-	1 (1)	-	-	4 (1)
Euskarazko arreta	-	-	-	-	-	1	-	1
Gradu/Master amaierako lana	-	-	-	1	-	-	-	1
Ikasketetarako sarbidea	4 (1)	-	-	-	-	-	-	4 (1)
Ikasleen ebaluazioa	1	2	-	1	3	3	-	10
Intimitaterako eskubidea	-	1	-	-	-	-	1	2
Irakaskuntzaren kudeaketa	-	-	1	-	-	-	1	2
Irakasleen portaera	-	-	-	-	-	-	2	2
Jendaurreko arreta	-	2	-	-	-	-	-	2
Kanpoko praktikak	-	-	1	-	-	-	-	1
Matrikula	-	-	-	-	-	1	-	1
Mugikortasuna	-	-	-	1	-	-	-	1
Presoentzako arreta	-	-	-	-	1 (1)	-	-	1 (1)
Prezio publikoak	1	1	-	1	1	-	-	4
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	1 (1)	-	-	-	-	1 (1)
Bestelakoak	1	-	-	-	-	-	-	1
Ikasleak guztira	10 (1)	11 (2)	5 (1)	5 (1)	8 (2)	6 (0)	4(0)	49(7)
Arautegia aplikatzeko modua	-	1	1	-	-	2	-	4
Arazoak lankideekin	-	3	-	-	-	-	1	4
Baimenak	-	-	-	-	-	-	1	1
Bekak	-	-	-	1 (1)	-	-	-	1 (1)
Burokrazia	-	-	-	-	2	-	-	2
Erosketak	-	-	-	1	-	-	-	1
Erretiroa	1	-	-	-	-	-	-	1
Etika zientifikoa (irakasleak)	-	-	1 (1)	-	-	-	-	1 (1)
Euskarazko arreta	-	-	-	-	1	-	-	1
IHP	-	-	1	-	-	1 (1)	-	2 (1)
Ikasleen ebaluazioa	-	1 (1)	-	-	-	-	-	1 (1)
Ikasleen portaera	1	-	-	-	-	1	-	2
Ikastegiko zuzendariaren portaera	-	-	1	-	-	-	-	1
Irakaslana banatzea	2	-	1	1 (1)	2 (2)	-	1	7 (3)
Irakasleen portaera	-	-	-	-	-	-	1	1
JAP/Kredituen aitortza	2 (1)	-	-	-	-	-	-	2 (1)
Jazarpena/Jazarpen portaerak	-	1	-	-	-	-	-	1
Jendaurreko arreta	-	-	-	-	-	1	1	2
Lan baldintzak	2	-	-	1	1	2 (1)	-	6 (1)
Merezimenduen ebaluazioa	-	-	-	-	1 (1)	-	-	1 (1)
Osagarri gehigarriak	-	2	-	-	-	-	-	2
PIF ordainsariak	-	-	1	-	-	-	-	1
Plazak/Ordezkapen poltsak	-	2 (1)	3 (1)	2 (1)	-	-	-	7 (3)
Prezio publikoak	1	-	-	-	-	-	-	1
Saileko zuzendariaren portaera	-	-	1	-	-	-	-	1
Tratu berdintasuna	-	-	-	-	-	-	1	1
Irakasle-ikertzaileak guztira	9 (1)	10 (2)	10 (2)	6 (3)	7 (3)	7 (2)	6(0)	55 (13)

7. taula. Baietsitako kexen gaiak

	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	Guztira
Arautegia aplikatzeko modua	-	-	-	-	-	-	1	4
Arautegia ez betetzea	-	1	-	-	-	-	-	1
Bateraezintasunak	-	-	-	-	-	-	1	1
Errektoregoaren portaera	-	1 (1)	-	-	-	-	-	1 (1)
Erretiroa	-	-	-	1 (1)	-	-	-	1 (1)
Hierarkian gorago dagoenaren portaera	-	-	1	-	-	-	-	1
Informazioa eskuratzeko eskubidea	1	-	1	2 (2)	-	-	-	4 (2)
Irakasleen portaera	-	-	-	-	1	-	-	1
Lan baldintzak	3	1	-	2 (1)	1 (1)	2 (1)	1	10 (3)
Merezimenduen ebaluazioa	1	-	-	1 (1)	-	-	-	2 (1)
Plazak/Lekualdatze lehiaketak	2	-	1 (1)	-	-	1 (1)	-	4 (2)
AZPko langileak guztira	7 (0)	3 (1)	3 (1)	6 (5)	2 (1)	3 (2)	3(0)	27 (10)
Bekak	1(1)	-	-	-	-	-	-	1 (1)
Gardentasuna eta gobernu ona	-	-	-	-	-	1	-	1
Ikasketetarako sarbidea	-	2	2	1	-	-	-	5
Jazarpena/Jazarpen portaerak	-	-	-	1 (1)	-	-	-	1 (1)
Kontratazioa	-	1	-	-	-	-	-	1
Merezimenduen ebaluazioa	1	-	-	-	-	-	-	1
Plazak/Ordezkapen poltsak	6 (2)	-	1 (1)	-	-	-	-	7 (3)
Tituluak eta ziurtagiriak	-	-	-	-	-	1 (1)	-	1 (1)
Bestelakoak	-	-	-	1 (1)	-	-	1	2(1)
Beste batzuk guztira	8 (3)	3	3 (1)	3 (2)	-	2 (1)	1(0)	20 (7)
GUZTIRA	34(5)	27 (5)	21 (5)	20 (11)	17 (6)	18 (5)	14(0)	151 (37)

1.9.2. Baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak

Jarraian, 8. taulan, baietsitako kexen jomuga zer organo eta kolektibo izan diren ikus dezakegu (aurrekoetan bezala, hiru urtetan edo gehiagotan agertzen direnak nabarmendu dira).

8. taula. Baietsitako kexen jomuga diren kolektiboak eta organoak

Kolektiboak eta organoak	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018
Argitalpen Zerbitzua	-	-	-	-	1	-	-
Arkitektura GETeko Zuzendaritza	-	1	-	-	-	-	-
AZPko langileak	-	-	-	-	-	1	-
Berrikuntzaren, Gizarte Konp. eta Kultur. arloko Errek.	-	-	-	-	-	1	-
Bilboko Ingeniaritza GETeko Idazkaritza	-	1	-	-	-	-	-
Bilboko Ingeniaritza GETeko Zuzendaritza	1	-	-	-	-	-	-
Bilboko Irakasleen UEko Zuzendaritza	-	-	-	1	-	-	-
DBHko Irakasleen Prestakuntzako M. Zuzendaritza	1	-	-	-	1	-	-
Epaimahai Berezia	-	-	-	-	1	-	-
Erosketen atala	-	-	-	1	-	-	-
Errektoregoa	4	3	1	1	1	-	-
Euskara eta Eleaniztasuneko Errektoreordetza	1	-	-	-	-	-	-
Farmazia F. Dekanotza	-	1	-	-	-	-	-
Gasteizko Erizaintzako Unibertsitate Eskola	-	-	-	-	-	-	1
Gerentzia	8	1	-	-	1	1	1
Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza	-	-	-	-	-	-	1
Gizarte eta Komunikazio Zientzien F. Dekanotza	-	1	-	-	-	-	-
Gradu Ikasketen eta Berrikuntzaren arloko Errek.	6	3	1	-	-	-	-
Graduko eta Graduondoko Ikasketen arloko Errek.	-	-	-	-	-	1	1
Graduondokoen eta Nazioarteko Harreman. arloko E.	-	-	-	1	1	-	-
Idazkaritza Nagusia	1	1	1	3	-	-	1
Ikaslea	1	1	-	-	2	2	-
Ikasleen eta Enplegarritasunaren arloko Errek.	-	-	-	-	-	-	1
Ikerketaren arloko Errektoreordetza	2	1	1	2	1	-	-
IKTen Gerenteordetza	-	-	-	-	-	1	-
Ikuskizunaren Arteak eta Zientziak M. Zuzendaritza	-	-	-	1	-	-	-
IMHko Ingeniaritza Dualaren E. Zuzendaritza	-	-	-	-	-	2	-
Irakasle-ikertzaileak	-	5	1	-	3	1	4
Irakasle-ikertzaileen arloko Errektoreordetza	6	3	5	3	3	3	2
Itsas Ingeniaritzako Masterraren Zuzendaritza	-	-	-	1	-	-	-
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientzien F. Dekan.	-	-	-	1	-	-	-
Kanpoko Praktiken Zuzendaritza	-	-	1	-	-	-	-
Master eta Doktorego Eskola	-	1	1	-	1	-	-
Master Lanbideratzailearen Zuzendaritza	-	-	-	-	-	2	-
Medikuntza eta Odontologia F. Dekanotza	-	1	1	-	-	-	-
Pertsonaleko Gerenteordetza	-	1	1	3	-	1	1
Psikologia F. Dekanotza	1	-	-	-	-	-	-
Psikologia Fakultateko Idazkaritza	-	1	-	-	-	-	-
Saileko zuzendariak	2	-	4	-	1	-	1
Sarbidea	-	-	2	1	-	-	-
UPV/EHU – Osakidetza Batzorde Parekidea	-	-	-	-	-	1	-
Zerbitziburua	-	-	1	-	-	-	-
Zientzia eta Teknologia Fakultateko Idazkaritza	-	1	-	-	-	-	-
Zuzenbide F. Dekanotza	-	-	1	1	-	1	-
Guztira	34	27	21	20	17	18	14

1.10. Jasotako erantzuna

Bulegora iritsi diren kekek bideratzeko jo dugun pertsonen eta organoen erantzuna ona izan da gehienetan: baietsitako 14 kexetatik 12tan, haiengana jo dugunean, pertsonak edo organoak egoki eta zentzuz hartu dituzte bulegoak egindako planteamenduak eta gomendioak. Bi kasuetan ezezko erantzuna jaso dugu, araudiaren bestelako interpretazio batean oinarrituta (ikus 9. taula).

9. taula. Eraginpeko organoek emandako erantzuna

Erantzuna	2012	2013	2014	2015	2016	2017	2018	Guztira
Ona	27	22	15	18	15	16	12	125
Ona, neurri batean	3	2	3	2	2	1	-	13
Ezezkoa	4	3	3	-	-	1	2	13
Guztira	34	27	21	20	17	18	14	151

1.11. Inplikaturako zerbitzuen eta arduradunen lankidetzak

Zerbitzu eta pertsona guztiek prestutasunez lagundu digute, kexa edo kontsulta bati egoki erantzuten saiatzeko haiengana jo dugunean. Bete ez diren gomendioen kasuan, dagozkion organoek Aldezlearen gomendioa ez betetzeko arrazoiak adierazi dituzte.

2108ko txosten honetaz baliatuta, eskerrak eman nahi dizkiegu Aldezlearen zerbitzuarekin lankidetzan aritu diren eta gure lana ongi egiten lagundu diguten pertsona guztiei: ikastegi eta sailtako idazkaritzetako langileak, ikastegietako dekanok eta zuzendariak, sailtako zuzendariak, zerbitzuetako arduradunak, Errektorego taldeko kideak, ikasleak, etab.

2. Aldezlearen beste eginkizun batzuk

Kontsultak eta kexak jasotzeko, izapidetzeko eta ebazteko ohiko jardueraz edo bitartekaritza prozesuez gainera, jarraian aipatzen ditugun jarduerak egin ditugu.

2.1. G9 taldeko defendatzaileekiko lankidetzak

G9 taldeko defendatzaileek apirilaren 16an eta 17an Zaragozan egindako bileran parte hartu zen, UPV/EHU taldeko kidea baita. Bileran gai hauek landu ziren:

- 1) "Diziplina araubidea".
- 2) "Atzerriko tituluen homologazioak/baliozkotzeak".
- 3) "Langileen gizarte ekintza"
- 4) "Arrakasta edo errendimendu tasa txikiko gaietan egin daitezkeen jarduerak".

Aldezlearen zerbitzuak txostenak prestatzeko lanean parte hartu zuen, txosten bakoitzaren arduradunak bidalitako inkestei erantzunda.

2.2. Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziaren XXI. Bilkura

Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen XXI. Bilkura, Estatuko Unibertsitate Defendatzaileen Konferentziak (CEDU) bultzatu eta Leongo Unibertsitateak antolatutakoa, Leonen egin zen, 2018ko urriaren 16tik 19ra. Bertan gai hauek aztertu ziren:

- 1) "Beldurra kexa bat aurkezteko unean: konfidentziasun ezaren balizko ondorioak".
- 2) "Defentsorien erakunde harremanak unibertsitateko ikuskaritza zerbitzuekin, herriaren defendatzaileekin eta erkidegoetako haien homologoekin".
- 3) "Unibertsitatearen irudi publikoa".

2.3. CEDUren XI. Batzar Nagusia

2018ko urriaren 19an Unibertsitate Defendatzaileen XI. Batzar Nagusian parte hartu zen, Leongo Unibertsitatean.

2.4. CEDUren defendatzaileekiko lankidetzak, foroetan parte hartuta.

Unibertsitateko defendatzaileen arteko etengabeko lankidetzaren esparruan, nahiko arrunta izaten da gaiak posta elektronikoen bidez planteatzea, hainbat gairi buruzko informazioa eskatzeko. 2018. urtean, gure bulegoak parte hartu eta ekarpenak egin ditu, CEDUren defendatzaileek kontsultatutako gaien inguruan. Era

berean, G9ko eta CEDUko bileretan aztertutako gaietarako buruzko informazioa eskatuz iritsi zaizkigun inkesta guztiei erantzun diegu.

2.5. UPV/EHUren Gobernu Kontseiluetan parte hartzea

Aldezlea Gobernu Kontseiluak egindako bileretara joan da, gonbidatu gisa. Gobernu Kontseiluaren bilera horietan, gure unibertsitatearen eztabaidak, proposamenak eta akordioak hobeto ezagutzeko aukera izan dugu; planteatutako arazoak ezagutu eta ulertu ulertu ahal izan ditugu; eta, hori guztia oso baliagarria izan zaigu gure zereginak betetzeko.

3. Urteko txosten ekonomikoa

2018ko aurrekontua 20.000 eurokoa izan zen. Hamargarren taulan, gastuen laburpen bat eta urteko ekitaldi ekonomikoa ixteko datari –abenduak 31– dagozkion kontuen egoera ikus daitezke.

10. taula. 2018ko laburpen ekonomikoa

Hasierako aurrekontua	20.000,00 €
Gastuak	
Bulegoko materiala, fotokopiak...	2.929,78 €
CEDUko bazkide kuotak	225,00 €
Liburuak	196,69 €
Bidaiak eta dietak	6.546,73 €
Beste gastu batzuk	657,67 €
Gastuak guztira	10.555,87 €
Saldoa	9.444,13 €

4. Ondorioak eta gomendioak

2018. urtean aurkezturiko kontsultak eta kexak oinarri hartuta, jarraian hainbat gogoeta partekatu nahi ditugu unibertsitateko kideekin, bulegora iritsi diren zenbait gairen harira, baita gure ustez arreta berezia merezi duten beste batzuen harira ere, gizarteari ematen diogun zerbitzua hobetze aldera. Azpimarratu nahi dugu ondoren aipatuko ditugun gaiek ez dutela garrantzi estatistikorik, eta ezin daitezkeela hartu UPV/EHUko funtzionamenduaren erakusle gisa. Gai eta arazo zehatzak dira eta ohiz gai isolatuak. Halere iruditu zaigu gai horien gainean hausnarketa bat eragitea gauza egokia izan daitekeela unibertsitate zerbitzua hobetze aldera, jakinik ere jarduera horiek ez direla unibertsitatearen jarduera orokorraren erakusle, ezta gaiok planteatu dituzten kolektiboen erakusle ere.

Hasteko, unibertsitateko kolektibo guztietatik jasotako kontsultek bulego honen lanean duten gero eta garrantzi handiagoari egin nahi diogu erreferentzia. Horrekin lotuta, esan beharra dago kontsulta horien izaera eta irismena oso dela desberdina;

zenbait kasutan, berehalako konponbidea duten kontsultak izaten dira, beste batzuetan, aldiz, konplexutasun handiagoko kasuak dira eta, erantzun bat eman aurretik, hainbat arau eta hainbat zerbitzuren kontrastea eskatzen dute. Dena dela, atara dezakegun lehenengo ondorioa da unibertsitateko hiru kolektiboetako kideen artean nolabaiteko ezjakintasuna dagoela gure jarduera zuzentzen duen araudiari buruz, baita hark aurreikusten dituen eskubide eta betebeharreri buruz eta haiek eraginkor egiteko dauden prozedura eta mekanismoei buruz ere. Ikuspegi horretatik, dibulgazio lana egiten saiatuko gara unibertsitateko kideei dagozkien eskubide eta betebeharreri buruz. Nolanahi ere, bai ikasleei, bai irakasle-ikertzaileei, gehien eragiten dieten gaien inguruan informatuta egoteko ahalegina egiteko eskatu nahiko nieke; adibidez, ebaluazio araudiari buruz, prozedura jakin batzuetan parte hartzeko epeei buruz, irakaskuntza gida "irakasgaiaren lege" gisa ikusteko beharrari buruz, eta benetan egunerokoak diren beste gai batzuei buruz.

Bestalde, ikuspegi orokor batetik, unibertsitateko hainbat kolektibotan baina, batez ere, irakasle-ikertzaileen eta agian baita AZPko langileen artean ere antzematen dudan sentazio bati egin nahi diot erreferentzia. Nolabaiteko nahigabe edo atsekabe sentazioa da azken urteetan unibertsitatekanpo egin diren murrizketetatik eta gastuari eusteko hartutako neurrietatik eratorria, eta eragin handia izan duena unibertsitateko ibilbidean eta karguetan aurrera egiteko aukeretan. Irakasle-ikertzaileek etengabeko presioa eta karga burokratikoak jasan behar dute emaitzak ebaluatu eta neurtzeari dagokionez; gainera, lan horiek arintzea zail gertatzen da promozio erritmoa ez datorrenean bat itxaropenekin eta eginiko ahaleginarekin. Onartu beharra dago egoerak hobera egin duela azken urtean birjartze tasen gorakadari esker eta irakasleriaren kontsolidazio prozesuei esker.

Jarraian, gugana iritsi diren gai berri batzuetan eta 2018an berriz gertatu diren beste batzuetan zentratuko gara, eta haien harira sortutako auziak aipatuko ditugu, gogoeta piztu eta irtenbideak aurkitze aldera.

Etengabeko ebaluazio proben kalifikazioak argitaratzen berandutzeak eragindako arazoak

Planteatu den gaietako bat da etengabeko ebaluazio sistema osatzen duten proben kalifikazioak berandu argitaratzen direla. Arazoa sortzen da batez ere etengabeko ebaluazioko azken proba eskolaldiaren amaieran egiten denean, azterketa ofizialen datetatik gertu. Horrekin lotuta, Graduak titulazio ofizialetako ikasleen ebaluazio araudiak dio azken ebaluaziokoak ez diren proben kasuan, kalifikazioa argitaratzeko 21 egun naturaleko epea egongo dela, proba egin edo aurkeztu den egunetik kontatzen hasita. Gauza da batzuetan gehieneko epea gehiegizkoa suertatzen zaiela ikasleei, eskolaldiaren amaieran eginiko proba horren emaitzak baldintzatu egin baitezake azterketa aldiaren egin beharreko balizko proba baten edukia. Komenigarria izan daiteke araudian biltzea argitalpen hori amaierako proba baino denbora tarte jakin bat lehenago egiteko betebeharra. Gai hori ageriagokoa da etengabeko ebaluazioaren probak errekupegarriak direnean, bulego honek aurreko txostenean proposatu bezala (2017ko txostenaz ari gara).

Irakaslanaren banaketa

Sail guztiei gomendatu nahiko nieke ahalik eta gardentasun handienarekin jokatzeko irakaslanaren banaketa egiteko garaian. Sail gehienetan hala egiten da, arloak batuta, langileen lehentasunak, premiak eta ezaugarri pertsonalak balioetsita, irakasle-ikertzaileei sail osoaren berri gardentasunez emanda, sor daitezkeen zalantzak argituta, akordioak erraztuta... Nolanahi ere, beste batzuetan, gutxienetan, gardentasuna ez da hain handia, eta hori zuzendu egin beharko litzateke.

Irakaslanaren banaketari dagokionez, ebazpen batean adierazitakoaren ildotik, UPV/EHUⁿ irakaslanaren banaketari buruz aplikagarri den araudiaren interpretazioak gure ustez eragin ditzakeen hainbat gai nabarmendu nahiko genituzke.

- ❖ Saileko Kontseilua da irakaslanaren banaketa egiteko organo eskuduna, alde batera utzi gabe irakaskuntza beste sail edo atal bateko irakasleei esleitzeko aukera, non errektoreari baitagokion esleipena egitea.
- ❖ Irakaslana irakasleen artean banatzeko unean kontuan hartu beharreko alderdi materialei dagokienez, oinarritzko ideiak honako hauek dira:
 - Araudiak irakasgai (irakasgai baten taldeak) *osoak irakasle-ikertzaileei esleitzeko lehentasuna* ezartzen du, irakats betebeharrak indibiduala asetzeari begira (Irakaskuntza aldi baterako esleitzeko eta ikasleen artean banatzeko arautegiaren 10.2 artikulua).

Gure iritziz, arauaren interpretazio sistematiko bat eginez gero, uler daiteke esleipena irakasgai talde osoekiko egin behar dela lehentasunez eta bestelako esleipen moduak (talde baten esleipen partziala) soilik salbuespenetan egingo liratekeela. Bi irakaslek edo gehiagok talde berean interesa duten kasuetan, aukeraketa talde osoaren gainean egingo da, eta irakasleen irakats ahalmena amaitzean bi aukera geratuko lirateke: taldeak partekatzea edo irakaskuntza gehiago onartzea (batez bestekoa baino handiagoa, baita kontratatutakoa bera baino handiagoa ere). Lehenengoz hautatzen duenaren lehentasunen oinarriaren gainean, irakasgai bera *hiru irakaslek edo gehiagok* partekatzeak dakarren esleipen sistema batek, lehenik eta behin, UPV/EHUⁿ irakaskuntza aldi baterako esleitzeko eta irakasleen artean banatzeko araudiaren irakurketa behartuegia egiten du, nekez egokitu daitekeena bai ikuspegi pedagogikotik bai gure xedea den unibertsitate zerbitzu publikoaren ikuspegitik.

- Lehen esandakoaren harira, UPV/EHUⁿ aplikagarria den araudiak irakasle bati *kontratutakoa baino eskola ordu gehiago esleitzeko aukera* aurreikusten du (Irakaskuntza aldi baterako esleitzeko eta irakasleen artean banatzeko araudiaren 10.5 artikulua), gehiegizko irakaskuntza hori urte anitzeko plangintza baten bidez konpentsatuz gero. Kontratututako irakats ahalmena gainditzeko aukerak, borondatezkoa betiere, eta hori konpentsatzeko aurreikuspenak, zeinak sailak zehaztu behar baitu irakasleen errektoreordeari jakinarazita, izatezko arrazoia izango lukete irakasleei irakasgaien talde osoak esleitzearen ideian, irakaslana irakasle askoren artean banatzeko aukera mugatze aldera.

Irakaskuntza gehitzearen balizko mugari dagokionez, 898/1985 Errege Dekretuak, apirilaren 30ekoak, unibertsitate irakasleen araubideari buruzkoak, kasu espezifiko bat aipatzen du: ikerketa beharrei erantzuteko irakasle batzuei irakaskuntza betebeharrak aldi baterako salbuestetik eratorritakoa. Horrelakoetan, sailek arduraldi osoko irakasle batzuen irakaskuntza betebeharrak areagotu ahal izango dituzte, baina igoera hori ez da inoiz izango asteko hiru eskola ordutik gorakoa.

- Irakaskuntzaren banaketak ekitate printzipioa bermatu behar du. Ekitatera jotzen denean, badirudi araudiaren beraren interpretazio irizpide bat sartzen dela eta horren bidez saihestu nahi direla irakaskuntza hautatzeko lehentasun irizpideen hitzez hitzeko aplikazio zorrotz batek, kasu batzuetan, ekar ditzakeen gehiegikeriak, irizpideak errealitatera egokitu daitezten. Ekitatea, bere zentzu hertsian, ez da zuzenbide iturri bat, araudia interpretatzeko eta aplikatzeko arau bat baizik.
- Era berean, UPV/EHUko araudiak ezartzen duenez, proportzionaltasun printzipioak oinarrizko irizpidea izan behar du, irakaskuntza sailtako irakasleen artean banatzeko orduan. Saileko irakasle-ikertzaileen artean irakaskuntzaren banaketa proportzionala izatea da oinarrian dagoen ideia. Araudiak "proportzionaltasun" terminoa erabiltzen du (irakaskuntza aldi baterako esleitzeko eta irakasleen artean banatzeko arautegiaren 13.1 artikulua). Proportzionaltasunak ez dakar berdintasun printzipioaren aplikazio zorrotza saileko kide guztien artean, nahiz eta printzipio horrekin bateraezina ez izan. Izan ere, arauak berak aipatzen ditu campusen, ikastegien, jakintza arloen eta hizkuntza profilen arabera sor daitezkeen desberdintasunak. Berrero ere, banaketak emaitza proportzionalik eman ezean, urte anitzeko ikuspegi batetik printzipio hori errespetatzen bilatuko dela aurreikusten da, eta haren iraupena irakaskuntza esleitzeko akordioaren barruan sartuko da. Hau da, banaketaren ondorioz proportziorik eza emango balitz irakasleren baten kasuan (haren irakaslanaren esleipena sail edo atalaren batez bestekoa baino handiagoa izanik), gehiegizko irakaslan hori hurrengo ikasturteetan konpentsatu beharko litzateke.
- Edonola ere, proportzionaltasun printzipioak baditu ere zenbait muga negatibo, kolektibo jakin batzuekiko. Hala, *laguntzaileek, irakasle atxikiek, prestakuntza bidean dauden ikertzaileek eta ordezkoez* ezingo dute eduki proportzionalki dagokiena baino arduraldi handiagoa. Kolektibo horiei dagokienez, sailak zaindu beharko du irakaskuntza esleipen egokia jasotzen dutela beren irakasle eta ikertzaile prestakuntzarako, eta, horrez gain, beste faktore batzuk ere kontuan hartuko ditu, hala nola esleitutako gai edo irakasgai kopurua, horien arteko kidetasuna, eta ikasle kopurua (Irakaskuntza aldi baterako esleitzeko eta irakasleen artean banatzeko arautegiaren 13.1 eta 17.4 artikulua).

Araudian hauteman daitekeen ideien arabera, irakaskuntzara sartzen diren pertsonen egoera berezia aintzat hartu behar da, eskola ordu gehiegi izateak (Saileko batz bestekoaren gainetik, edota hainbat ikasgai esleitzuz) haien irakasle eta ikertzaile prestakuntza eragotz dezakeelako.

- Araudiak ezartzen du zer irizpide hartu behar diren kontuan irakaskuntza banatzeko orduan. Irizpide horiek ezin dira albo batera utzi, irakasgai taldeak hautatzeko unean irakasle batzuek beste batzuen gaineko lehentasuna dutelako. Hala, alderdi hauek aztertu behar dira: *irakasle bakoitzari esleitutako gaien edo irakasgaien kopurua, haien arteko kidetasuna, hartutako ikasleen kopurua eta ordutegia* (Irakaskuntza aldi baterako esleitzeko eta irakasleen artean banatzeko arautegiaren 13.7 artikulua).

Arauzko irizpideak dira, irakaskuntza esleipena onartzeko unean kontuan hartu behar direnak, kasuak banan-banan aztertuz eta zehaztuz. Irakaskuntzaren banaketa batean, akordiorik ezagatik, azken lekuan hautatzen duten irakasleei esleituko balitzaizkie irakasgai edo gai nabarmen gehiago, talde handiagoak edo gai desberdinak, edo eskolen artean ordutegi alde handiak izango balituzkete, bada, banaketa hori ez litzateke bat etorriko aplikazio arautegian aurreikusitako irizpideekin. Edonola ere, irizpide horien aplikazioa sail bakoitzaren egoera zehatza kontuan hartuta egin beharko da.

- UPV/EHUko langileen lan baldintzak arautzeko akordioak ere irizpide horiek berak aipatzen ditu, eta *bazterkeria ezaren printzipioaren* oinarriaren gainean finkatzen ditu. Hala, ulertzen da bazterkeria eman daitekeela, baldin eta sailak onartutako banaketan alderdi hauek aintzat hartzen ez badira: irakasle bakoitzari esleitutako irakasgai kopurua, horien arteko kidetasuna, haren ordutegia, eta irakaslan egoki egiteko kontuan hartu beharreko inguruabar guztiak (75. artikulua). Irizpide horiek, berriro diogu, kasuak banan-banan aztertuta zehaztu beharko dira.
- *Familia eta lanaren kontziliazioa* irakaskuntzaren banaketan kontuan hartu beharreko beste irizpide bat da. Araudian ordutegi malgutasunari lotuta ageri da, baina ez da zehaztasunez garatzen. Familia eta lana kontziliatzeko ordutegi malgua izateko eskubidea aurreikusita dago bai taldeen banaketan (alderdi horrek sailari eragiten dio) bai ordutegiak egitean (alderdi horrek fakultateari eragiten dio). Araudiak, edonola ere, ez du agindurik ematen, eta "gogoan izan beharko da" esatera mugatzen da. Haren aplikazio eremua, bestalde, lan kontratudun langileei mugatuko litzateke, hasiera batean. Alderdi horren gaineko irakurketa orokorra izan daiteke sailak ezin duela familia eta lanaren kontziliazioa albo batera utzi irakaskuntza banatzeko orduan, transkribatutako UPV/EHUko Lan Kontratudun Irakasle eta Ikertzaileen II. Hitzarmen Kolektiboan ezarritako baldintzetan, zeinari erreferentzia egiten baitiogu.
- Sistemaren elementu giltzarria *irakaskuntza hautatzeko lehentasunen sistema* da. Halere, irakasleen arteko lehentasunak hautatzeko unean ezin ditu aintzat hartu gabe edo bazterrean utzi aipatu ditugun gainerako irizpideak eta printzipioak, araudi aplikagarrian aurreikusten diren neurrian (ekitatea, irakasle taldearen minimizazioa irakasgaiko, etab.), edo beste batzuk, hala nola irakasleen espezialitatea.
- Taldeak hautatzeko lehentasun irizpideak UPV/EHUko irakaskuntza aldi baterako esleitzeko eta irakasleen artean batzeko araudiaren 18. artikuluan finkatu dira, eta hura irakurrita, honako alderdi hauek nabarmentzen dira:

- Lehenik eta behin, arauak gaitasuna ematen dio sailari *irakaslana banatzeko irizpide gehigarriak eta orokorrek modu arrazoituan bereganatu ditzan*, eta adibide hau aipatzen du: "enborreko eta nahitaezko gaiak kategoria handieneko irakasle-ikertzaileek emango dituzte...". Horren irakurketa hau izango litzateke: lehendabizi, sailak *tartea* du esleitzeko irizpideak zehazteko; bigarrena, zehazteko ahalmen horrek errespetatu behar ditu beti aplikazio araudian jasotako aginduak, araudiaren aurkako irizpideak erabili gabe. Eta, hirugarrena, zehaztapenak behar beste arrazoitua egon behar du.
 - 18. artikuluan aurreikusitako metodologiaren hasieran *atariko fase* bat dago, non irakasle guztiei eskatzen zaien beren lehentasunak adierazteko.
 - Irakasleen artean irakaskuntza esleitzeko ohiko irizpidea *akordioa* da. Bakoitzak adierazitako lehentasunetatik abiatuta, arauak akordioa bilatzea bultzatzen du. Guk ulertzen dugunez, arauaren arabera ez litzateke egokia izango bat etortzeen kasurako pentsatutako lehentasun irizpideak zuzenean erabiltzea taldeen aukeraketan, aldez aurretik lehen fase horretan jardun ez balitz.
 - Akordioa lortzen saiatu eta emaitzarik lortuko ez balitz, arauak aurreikusitako irizpide subjektiboen arabera bigarren fase bat hasiko litzateke, zeina hurrenkeraren arabera aukeraketan oinarritzen baita. Zehazten denez, irizpide horiek, segidan aipatuko ditugunak, *irasle batek baino gehiagok irakasgai bera ematea eskatzen dutenean* aplikatuko dira. Ematen du, beraz, arauak irakasle bakar batek eskatutako irakasgaiak albo batera uzten dituela. Fase horretan, irakasle-ikertzaileek batera eskatu behar dute beren irakaskuntza konpromiso osoa.
 - Modu jarraituan aplikatu beharreko irizpideak, laburbilduta, honako hauek dira:
 - 1- Irakasle-ikertzaile iraunkorrek lehentasuna dute ez-iraunkorren aurretik (bitartekoak edo aldi baterakoak).
 - 2- Kategoria handienetik txikienerako irakasle-ikertzaileak.
 - 3- Irakasle-ikertzaile doktoreak doktore ez direnen aurretik.
 - 4- Kidegoan edo kontratu kategorian antzintasun handienetik txikienerako irakasle-ikertzaileak.
 - 5- Azken irizpidera iritsi ondoren berdinketa emanez gero, zozketa bidezko sistema aplikatuko da.Arau espezifikoak aurreikusten dira, ordezkapenen kasuan aintzat hartu beharreko pertsona zehazteko (ordezkoa edo titularra), ordezkapenen iraupenaren arabera.
- ❖ Kategoriaren eta antzintasunaren irizpideek Justizia Auzitegien jurisprudentziaren babesa izan dute (ikus guztientzat Auzitegi Gorenaren 1999ko otsailaren 16ko epaia). Halere, jurisprudentziak ez du ukatzen beste irizpide batzuk aplikatzeko aukera, irakaskuntzaren esleipena arautzeko unean. Gogoan

izan bitez alderdi hauek: eman beharreko gaiari buruzko irakasleen espezializazioa –bereziki graduondokoetan–, irakasgai jakin bat prestatzeko irakasleek egindako ahalegina konpentsatzeko urte aniztasuna irakasgaiak ematean, edo ikasle talde berari irakasgaiak emateko balizko jarraitutasuna... Sailak irizpide horiek guztiak har ditzake kontuan. Guk ulertzen dugunez, kategoria eta antzinasun irizpideak baldintza bertsuetan (edo berean) dauden irakasleen artean aplikatu beharko liriateke. Halere, abiapuntutzat hartzen bada irizpide horiek beste batzuekin bateragarriak izan daitezkeela eta beste irizpide horiek irakasleak abiapuntu desberdinetan jar ditzaketela, bada, gure ustez, kategoriak eta antzinasuna abiapuntu egoera horien gainean aplikatu beharko liriateke, eta ez beti horiek baino lehen.

Gradu Amaierako Lanekin loturiko gaiak

Ikasketa plan berrien ezarpenak aldaketa handiak ekarri zituen karrera amaierako proiektu klasikoak ez zituzten titulazioetara. Gradu Amaierako Lanak zailtasun berezirik gabe ezarri ziren, baina ordutik denbora tarte bat igaro denean, eta metatu dugun esperientziari erreparatuta, komenigarritzat jotzen dugu gelditu eta hainbat auziren gainean gogoeta egitea.

Ikuspegi estatistikotik kasu adierazgarriak ez badira ere, arazoetako bat lanaren ikasleak zuzendariaren aldetik jasotako arretarekin eta harekin duen harremanarekin dago lotuta. Inoiz (kontutan izanik urtero defendatzen diren GRALen kopurua, salbuespenezko kasuean) jakinarazi digute ikasleak ez zeudela pozik esleituriko irakasleak eginiko zuzendaritza lanarekin eta komunikazio faltarekin, eta bien artean desadostasunak ere sortu izan direla esan izan digute. Horrekin lotuta, esan beharra dago UPV/EHU indarrean dela Gradu Amaierako Lana egin eta defendatzeari buruzko arautegia, 2015eko martxoaren 12ko Gobernu Kontseiluan onartua. Bertan irakasleak egin beharreko lana deskribatzen da eta, funtsean, honako hau litzateke: "Irakaslearen ardura izango da ikasleari lanaren ezaugarriak azaltzea, ikasleari lana egiteko orientazioa ematea eta zehaztutako helburuak betetzen direla zaintzea, bai eta lanaren jarraipena egitea eta ikasleari lana defendatu aurretik emango zaion txostena idaztea ere". Lanaren emaitza eta amaierako kalifikazioa baldintza dezakeen garrantzi handiko zeregina da, eta horregatik eskatu behar da ardura handiz jokatzeko.

Argi geratu da GRALak zuzentzen dituzten irakasle guztiak ez daudela pozik, batzuei iruditzen baitzaie desoreka dagoela tutoretzek eta zuzendaritzek eskatzen duten lanaren eta halakoek ekartzen duten aintzatespen txikiaren artean. Horrekin lotuta, gogoeta bat ireki daiteke honakoei buruz: zer lan karga dakar benetan GRALak behar bezala zuzentzeak? eta egun irakasle-ikertzaileengan duten eragina egokia da edo behar baino txikiagoa?

GRALekin loturiko beste gai bat haien plangintzari buruzkoa da. Eskema prestatzen eta metodologia zehazten denetik, GRAL idatzi eta epaimahaiaren aurrean defendatzen den arte hainbat fase daude tartean, eta komeniko litzateke haiek protokolizatzea. Hala, normalean prozesuaren amaieran, entrega egunetik oso gertu, bakarrik azaleratzen diren arazoak hautematen lagunduko luketen zenbait mugarri ezarri beharko liriateke prozesuan; izan ere, hala egin ezean, aldaketak egiteko denbora gutxiegi geratzen da.

GRALekin jarraituz, zuzendariz ahalik eta modu arinenean aldatzeko aukera ere planteatu liteke. Sailek ohiko irakasgaietako irakasleak ordezkatzeko baliatzen duten prozeduraren prestasun bera eskatu beharko litzaioke GRALen zuzendariak esleitzeaz arduratzen den instantziari (Fakultatea edo Eskola) GRALen zuzendariak ordezkatu behar diren kasuetan, ikasleek behin eta berriz zuzendaritza eraginkor bat erreklamatu arte itxaron gabe.

Etengabeko ebaluazio sistema eta amaierako ebaluazio sistema bereiztea

Bulegora iritsi zen kasuetako batean, etengabeko ebaluazioa aukeratu zuten ikasleek ikasturtean zehar eginiko proba guztiak entregatu behar zituzten irakasgaia gainditzeko. Horrekin lotuta, aintzat hartu behar da UPV/EHUko graduiko ikasleen ebaluazioari buruzko araudiak amaierako ebaluazioa egiteko eskubidea bermatzen diela ikasle guztiei, etengabeko ebaluazio sisteman parte hartu duen gorabehera. Baina, hori egiteko, ikasleek etengabeko ebaluazioari uko egiten diotela dioen idazki bat aurkeztu behar diote irakasgaiaren arduradunari, araudiak berak ezartzen duen denbora tartean. Adierazitako kasuan bi ebaluazio sistemen arteko bereizketa falta planteatzen zen. Jakina denez, amaierako ebaluazio sistemak ikasketaren emaitzak proba baten bidez ebaluatzeko aukera aurreikusten du; probak irakasgaiaren ebaluazio globala egiteko azterketa eta jarduera bat edo gehiago bil ditzake, azterketa aldi ofizialean egin beharrekoak. Arauak, dena den, honako hau aurreikusten du salbuespen gisa: “[...], ebaluazio sistema horrek ikasturtean zehar egindako jarduerak ere barne hartu ahal izango ditu, azterketa aldi ofizialean ezarritako proban ebaluatu ezin diren ikaskuntzaren emaitzak baloratzeko” (8.2.b artikulua). Dena dela, jarduera horiek irakasgaiaren irakaskuntza gidan azaldu behar dira, dagokien haztaperarekin, eta sailaren oniritzia izan beharko dute. Eta, betiere, “sailak bermatu egin beharko du azterketa aldi ofizialean egindako proban programaren zatirik handiena ebaluatuko dela eta proba horretan ikasleek irakasgaiaren guztizko kalifikazioaren ehunekorik handiena eskuratzeko aukera izango dutela” (8.2.b *in fine*).

Azken batean, aldezearen iritziz bi sistemak (etengabeko ebaluaziokoa eta amaierako ebaluaziokoa) bereizi egin behar dira. Amaierako ebaluazioaren kasuan, sistema horretan sartzen diren ikasturtean zehar eginiko jarduerak izango dira “azterketa aldi ofizialean ezarritako proban ebaluatu ezin diren ikaskuntzaren emaitzak baloratzekoak”; hau da, irizpidea murriztasunez interpretatu behar da. Eta are hobeto azpimarratzeko, jarduera horiek ondo azalduta egon behar dira irakaskuntza gidan, dagokien haztaperarekin, eta gainera, sailaren oniritzia izan beharko dute. Azkenik, amaierako proba diseinatzerakoan aintzat hartu behar da programaren zati handiena ebaluatu behar duela, aukera emanda ikasleei proba horretan irakasgaiaren guztizko kalifikazioaren ehunekorik handiena lortzeko.

Baldintza horiek guztiak ezinbestekoak dira ikasturtean zehar eginiko jarduerak amaierako ebaluazio sisteman txertatzeko. Araudiak ehuneko zehatzik ematen ez badu ere, badirudi amaierako probak programaren zatirik handiena ebaluatzea dela helburua, baita haren haztaperaren horrekin bat etortzea ere.

Irakasleen ordezkoen hautagaien zerrendarako sarbidea

Ordezkapen poltsetarako sarbidea Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleen ordezkokoak egiteko zerrendak gestionatzeko arautegiak arautzen du, 2011ko

martxoaren 11ko Ebazpenaren bidez onartua. Prozedura zehatz xedatzen duen araudia da, hala epaimahaien aukerabide teknikoa murriztuta, eta sarbidea berdintasun, meritu eta gaitasun printzipioekin bat egiten dela bermatuta. Gai honi dagokionez, araudiak aurreikusten du merituak haztatzeko aukera jakintza arloari egokituz. Ildo horretatik, ezinbestekoa da Balioespen Batzordeak argi eta zehatz justifikatzea haztaper horiek, araudiak eskatzen duenaren ildotik, poltsetan sartzeko prozeduraren objektibotasunari buruzko edozer zalantza argituta gera dadin.

Gaiaren funtsari buruzko balioespena gora jotzeko errekurtsuetan

Aipamen bat egitea merezi duen beste gai bat gora jotzeko errekurtsoen ebazpenak izan beharreko irismenari buruzkoa da. Batzuetan agintari eskudunak ebatzitako gaiaren funtsarekin ados ez dauden pertsonak etortzen zaizkigu bulegora. Kasua aurkezten digute eta, erabaki horrek ez badio amaiera eman administrazio bideari, gora jotzeko errekurtsua jar dezaten aholkatzen diegu. Ikusten dugu errekurtsu horien ebazpenak ez direla beti sartzeko kasuaren mamian, hau da, gaiaren funtsean, bakarrik ebazpenaren alderdi formalei eta hura egiteko jarraituriko prozedurari buruzko irizpena emanda. Horrek errekurtsua jarri duen pertsonaren poztasun eza ekar dezake, espero baitezake hierarkian ebazpena eman duenaren gainetik dagoen goragoko agintaritzak gertakariak beste modu batera balioetsi eta kalifikatuko dituela, gaiaren funtsean sartuta. Gai formalei ez genieke garrantzirik kendu nahi, izan ere Zuzenbidearen munduan funtsezkoak baitira, eta horrela adierazten diegu gure bulegoetara hurbiltzen direnei, gai honetan teknikoak izaten ez direnak. Gai horrekin lotuta, bi gauza proposa daitezke: batetik, gora jotzeko errekurtsuaren idazkian argi eta garbi adieraz dadila zer eskatzen den (ez baita gauza bera erabaki bat ezeztatzen eskatzea edo ezeztatzeaz gain, prozeduran atzera egitea eskatzea, edo beste bat igortzea zentzu jakin batekin, edo zuzenean eskubide batzuk onartzea). Bestalde, errekurtsuak ebazteko baliatzen den mekanikan sartuta, komenigarria litzateke errekurtsuaren ebazpenak gaiaren mamiaz ebaz dezala, hori bidezkoa den guztietan, formazko gaietaz jarduteaz gainera (baita forma akatsak errekurtsua baztertzeke arrazoi nahikoa diren kasuetan ere).

Berandu hel daitezkeen epean emandako ebazpenak

Komeni da ez nahastea epearen barruan emandako ebazpenik eza eta epean eman den baina berandu heldu den ebazpena. Ebazpenik ezari buruz hitz egin genuen jada iazko ikasturteko txostenean (2017ko jarduerari buruzkoan). Egoera horiek errespetu falta erakusten dute eskatzaileekiko, eta batzuetan argi eta garbi kaltetzen dituzte. Era berean, erantzun faltak agerian jartzen du kalitate arazo bat dagoela gure unibertsitatean, eta horregatik ezinbestekoak dira hobetzeko estrategiak.

Iazko ikasturteari buruzko gure txostenean aurreko urteekin alderatuta arlo horretan izan den hobekuntza azpimarratu genuen, eta aurten hobetzeko bide horri jarraitzen diogu, berandu emandako ebazpen kasuren baten salbuespenarekin; halakorik jakin dugunean, gainera, gogorarazi egin diogu dagokion zerbitzuari edo saialari epearen barruan erantzun eta ebazpenaren berri eman behar duela.

Edonola ere, komeni da eskabideei buruzko zenbait auzi argitzea; izan ere, haien izaera nolakoa den, desberdina izango da aplikagarri den erregimen juridikoa. Hala, hainbat kasu bereizi behar dira:

- Eskariak egiteko eskubidean oinarrituriko eskabidea, iradokizun, ekimen, informazio, kexa edo eskari edo erregu bat erantsita. Eskatzeko eskubidearen xedearen ezaugarria da zabala izatea eta interes orokor, kolektibo edo partikularreko edozein gairi buruzkoa izatea. Halere, izaera administratiboko prozedura formal espezifikoeikiko ordezkio izaera duenez, hertsiki aukerakoa edo adeitsua izatearen eremura mugatu da, bereziki araututako prozedura baten xede ez den horretara. Kasu horietan, ebazpena epean ez ematearen prozedura eta ondorioak Eskariak Egiteko Eskubidea Arautzen duen azaroaren 12ko 4/2001 Lege Organikoaren xedapenen bidartez bideratu behar dira.
- Informazio publikoa eskuratzeko eskubidean oinarrituriko eskabidea. Pertsona guztiak dira eskubide horren titular eta eskatzeko arrazoia adierazi beharrik gabe balia daiteke. Eskubide hori oso kasu gutxitan muga daiteke; esaterako, informazioaren izaerak hala eskatzen duenean, edo beste interes babestu batzuekin gatazkan dagoenean, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearekin bat. Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea gauzatzea errazte aldera, lege horrek prozedura bizkor bat ezartzen du, erantzun epe laburra duena. Informazio publikoa eskuratzeko bideari buruzko gaietan emandako erabakiak, edo erabaki eza, zuzenean errekurritu daitezke Administrazio auzien jurisdikzioaren aurrean, Informazio Publikoa Eskuratzeko Euskal Batzordearen aurrean hautazko erreklamazio jartzeko aukera eragotzi gabe, aukerako izaera edukita eta administrazio auzibidean aurka egin aurretik. Beste kasu bat eman daiteke unibertsitateko organoek eskatutako informazioa jendaurrean jarri behar dutenean UPV/EHUren gardentasun atarian.
- Eskaera hori unibertsitateko araudietan jasotako prozedura baten baitan biltzen da. Kasu horretan, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legean bildutako araubide orokorra aplikatuko da, baita unibertsitateko araudi espezifikoa ere, eta epeak bertan ezarrita egongo dira.

Eskabideen erantzun falta alde batera utzita, beste gai batean zentratu nahi dugu arreta, alegia, epearen barruan egindako ebazpen bat berandu heltzen denean. Pentsatu, adibidez, aurrez beste titulazio edo ikastegi batean eginiko irakasgai bat baliozkotzeko eskaera aurkeztu eta organo eskudunak atzera bota duela. Kasu horretan, interesdunak gora jotzeko errekurtsioa jarri ahalko du ezezkoa ematen dion ebazpena jakinarazten zaion egunaren biharamunetik zenbatzen hasita. Gora jotzeko errekurtsioa ez bada premiazko bidetik izapidetu, errekurtsioaren ebazpena emateko eta jakinarazteko legeak ezarritako gehieneko epea hiru hilabetekoa da. Baina, gerta liteke, epearen barruan jardunda ere, interesdunak ez jasotzea gora jotzeko errekurtsioaren ebazpena lehenengo ohiko deialdiari dagokion azterketa egiteko eguna baino lehen. Halako gaien aurrean, komenigarriena izapidetak bizkortzen saiatzea da, eta bereziki baliozkotze batzordearen lehenengo ebazpena ahalik eta azkarren ematea.

Garrantzitsua litzateke, halaber, zenbait prozedura berrikusi eta sinplifikatzea (agian ebazpena eskatzen duten hainbat prozedura) eskabideen erantzun denbora murrizten saiatzeko; izan ere, denboran luzatzen den ebazpen batek eraginkortasun praktikoa ken diezaioke.

Ebaluazioa

Ebaluazioari dagokionez, aurten aldezlearen aurreko txostenetan planteatu izan diren hainbat gai berriz sortu dira. Horrekin lotuta, ikasleak UPV/EHUren ebaluazioari buruzko araudia ezagutzera animatu nahi ditugu, dituzten eskubideak eta berrikuste mekanismoak ezagut ditzaten. Arlo horrekin lotuta gehien errepikatzen den gaietako bat ebaluazio irizpideekin loturikoa da; irizpide horiek ondo zehaztuta egon behar dute irakaskuntza gidetan. Irizpidek ez daude ondo zehaztuta gidetan, eta kasu askotan, irakasleen argibideak edo interpretazioa gailentzen zaizkie, eta hori zuzendu egin behar da. Esparru horren beraren barruan, Erreklamazio Batzordeen ebazpenei buruzko kasuren bat ezagutu dugu, eta planteatu da erabaki horiekin batera behar bezala azalduriko arrazoiak eman behar direla. Nabarmendu beharra dago, bestalde, gradu amaierako lanen kalifikazioen berrikuspenak ez daitezela mugatu gai formalak bete diren egiaztatzaera, emandako kalifikazioa egokia den ala ez balioetsi gabe.

UPV/EHU Jarraitzeko eta goragoko ikasturte bateko irakasgaietan matrikulatzeko mugari buruzko araudiaren interpretazioa

Gai horri erreferentzia egin genion iazko txostenean, baina berriz planteatu digu ikastegi bateko zuzendaritza organoak. Horregatik komeni da errepikatzea zein den Aldezlearen bulegoak proposatzen duen irizpidea. Gauza da nola interpretatzen den Gradu Ikasketetan UPV/EHU Jarraitzeko Arauaren 2.1 artikulua (UPV/EHUren Gizarte Kontseiluak 2010eko uztailaren 14ko bileran onartutakoa eta 2014ko apirilaren 15eko EHAAn argitaratutakoa). Honako hau dio adierazitako araudiaren 2.1 artikulua: "Ikasleak aurreko mailetan gainditzeke dituen irakasgai guztietan matrikulatu behar du". Baina auzia da xedapen horren interpretazio literala eginez gero, eta giltza irakasgaien kasuan, haietako bat gainditu ez duten ikasleek gure ustez, modu neurrigabearen dutela mugatuta aurrera egiteko gaitasuna. Honako hau litzateke kasua: pentsatu hirugarren mailako ikasle batengan, zeinak ez duen gainditu hirugarren mailako irakasgai bat egiteko ezinbestekoa den bigarren mailako giltza irakasgai bat; gauzak horrela, ikasle horrek, hirugarren maila amaitu duenean, ezingo du laugarren mailako irakasgairik hartu, ez baita matrikulatu beheragoko ikasturte bateko (hirugarren maila) irakasgai batean bigarren mailako giltza irakasgaia gainditzeke baitu.

Ulertzen dugu UPV/EHU Jarraitzeko Arauaren 2.1 artikulua bilatzen duena, funtsean, ikasleek aurreko mailetan gainditu ez dituzten irakasgaiak beren nahierara matrikulatu gabe ez uztea dela. Alabaina, beste kontu bat da ikasleak aurreko irakasgaietan matrikulatzeko aukera ez izatea, Ikasketa Planean hurrengo mailako irakasgaiak egin ahal izateko aurreikusitako eskakizunen eraginez. Bi egoera desberdin dira. Lehen kasuan, arauak ikaslearen ahalmena mugatu nahi du, bere nahieran irakasgai jakin batzuk egin gabe utz ez ditzan; bigarren kasuan, ordea, ikasleak ez du diskrezionaltasunik, Ikasketa Planak berak haren borondatea mugatzen duelako. Bigarren kasu horretan, gainditzeke dituen irakasgai guztietan matrikulatu nahi balu ere (hori baita araudi aplikagarriaren 2.1 artikulua lortu nahi

duena), ezingo luke halakorik egin haren esku ez dauden arrazoiengatik, eta horrek ikasketetan aurrera egitea eragotziko lioke. Gauzak horrela, honako hau da Aldezlearen zerbitzuak proposaturiko interpretazioa: UPV/EHUko Gradu Ikasketetan Jarraitzeko Arauaren 2.1 artikulua interpretazioak honako hau izan beharko luke: "ikasleak aurreko ikasturteetan gainditzeke dituen eta ikasketa planak uzten dion irakasgai guztietan matrikulatu beharko du". Hala, irakasgai baten matrikulazioa aurreko ikasturtearen beste irakasgai bat gainditzearen baldintzapean egonez gero, aurreko ikasturteko irakasgai matrikulatzea nahitaezkoa izango da Jarraitzeko Arauaren 2.1 artikulua betetzeko, baina hurrengo ikasturteko irakasgai matrikulatzeko ezintasunak (baldintza betetzen ez delako) ez du baldintzatuko mailen arteko aurrerapena edo beste irakasgai batzuetan matrikulatzeko aukera.

Amaitzeko, eskerrak ematea besterik ez zait geratzen, bai Aldezlearen zerbitzuan konfiantza izan duten guztiei, bai gure lana eta independentzia errespetatu duten unibertsitateko zerbitzu eta agintaritzak akademikoak.

I. ERANSKINA: 2018ko aztergaien zerrenda

Gakoak

Kolektiboa	Aztergai mota
IK: Ikasleak	KE: Kexa
IRI: Irakasle-ikertzaileak	KO: Kontsulta
AZP: Administrazio eta zerbitzuetako langileak	B: Bitartekaritza
Beste batzuk: UPV/EHUtik kanpoko pertsonak	

Zk.	Kolektiboa	Aztergai mota	Gaia
819	IRI	KO	Gabonetako oporretan tutoretzak betetzeari lotutako zalantzak.
820	AZP	KE	AZPko langile bat lanaldia aukeratzean jasotako tratu baztertzaila.
821	IK	KO	Irakasgai baten baliozkotzea ukatzeari jarritako errekurtsioa erabakitzeko eskaera.
822	Beste batzuk	KO	Jardutea, ordezkapen poltsa bateko epaimahaiak emandako puntuazioarekiko desadostasunagatik.
823	IRI	KO	Irakasle-ikertzaile plaza baten hautagaien eskubidea, gainerako lehiakideen meritua eskuratzeko.
824	IRI	KE	Desadostasuna, ikasleen kalifikazioak argitaratzeko ezarritako epearekin.
825	AZP	KO	Zailtasunak, hierarkian gorago dagoen pertsonarekin.
826	IK	KO	Arazo teknikoengatik practicumean ezin matrikulatzea.
827	IK	KO	Atsekabe orokorra irakasgai baten irakaskuntzarekin: edukia, emateko modua...
828	AZP	KO	Prestakuntza ikastaro baten parte hartzea ez aitortzea.
829	IK	KO	Plaza ukatzea, mugikortasun programa batean.
830	IRI	KO	Hainbat kontsulta, epai baten exekuzioagatik plaza baten esleipena ostera lagatzearen harira.

831	IK	KO	Ikastegi bateko Erasmuseko praktiken arduradunarekin biltzeko ezintasuna.
832	IK	KO	Zerbitzu baten funtzionamenduari buruzko kexa bat jartzeko protokoloa.
833	IRI	KO	Tesi zuzendari batek ustez emandako tratu desegokia.
834	IRI	KE	Desadostasuna, eskatutako baimena denboraz kanpo ukatzearekin.
835	IK	KE	Doktore aurreko kontratuan oker ordaindutako zenbateko bat itzultzeko eskaera.
836	IK	KO	Jardutea, MAleko tutorearen eta parte hartzen duen ikertaldeko hainbat kideren portaera desegokiaren aurrean.
837	AZP	KO	Datu pertsonalak argitaratzea unibertsitatearen direktorioan.
838	IRI	KO	Irakasleak ikasleei egindako tratu txarrak salatzeke protokoloari buruzko kontsulta.
839	Beste batzuk	KE	Espedientea blokeatzea nazioarteko beka baten onuradunari graduondoko baten matrikula ez ordaintzeagatik.
840	IK	KO	Hainbat zalantza, practicum beraren bi ziklo ebaluatzeke moduari buruz.
841	Beste batzuk	KO	Desadostasuna, zerbitzuaren begiraleak curriculumez kanpoko praktiken txostenari egindako balorazio negatiboarekin.
842	IK	KO	Desadostasuna, GRALren kalifikazioarekin
843	IRI	KO	Ikasleen portaera desegokia azterketen berrikuspenean.
844	IK	KO	UPV/EHU n Jarraitzeko Arauak ez betetzea, Gobernuaren Azpiordezkaritzaren Araudiari lotuta.
845	AZP	KE	Ordezkaritza arautzea, kide anitzeko gobernu organoetan.
846	IK	KO	HEOren beste azterketa bat egun berean edukita azterketa baten data aldatzeko eskaera ukatzea.
847	AZP	KE	Bateraezintasuna, lanpostuaren eta kide anitzeko organo baten karguaren artean.
848	IK	KO	Koordinaziorik eza, irakasgai emateko unean.

849	IRI	KO	Ikasleen Ebaluazioari buruzko Araudiari buruzko kontsulta.
850	IK	KE	Kanpoko Praktiken begiraleak ustez emandako tratu baztertzailea.
851	IRI	KO	Jarduteko aukera, ikasleen portaera desegokien aurrean.
852	IK	KO	Desadostasuna, ikasketen beka ukatzearekin.
853	IRI	KO	Aplikazioaren funtzionamendu okerra, zerbitzu ordainak eskatzean.
854	IRI	KO	Desadostasuna, doktorego proiektu baten ebaluazioarekin.
855	IK	KO	Desadostasuna, kredituen aitortzaren ukapenarekin.
856	AZP	KE	Desadostasuna, eguraldia dela-eta orduen konpentsazioari buruz gerentziak hartutako erabakiarekin.
857	AZP	KO	Desadostasuna, zerbitzu eginkizunen esleipenean emandako zerbitzuen balorazioarekin.
858	IK	KE	Irakasle-ikertzaile baten portaera desegokia greba egun batean.
859	IRI	KE	Irakasle-ikertzaile batek ustez egindako difamazioa.
860	Beste batzuk	KO	Garajerako sarrera ukatzea, UPV/EHUrekiko lotura amaitzeagatik.
861	IRI	KO	Jardutea, sail bateko irakasle-ikertzaileek irakaskuntza zereginak ez betetzeagatik.
862	IRI	KO	Irakasle-ikertzaile baten portaera desegokia saileko lankideekin.
863	IRI	B	Lan zientifiko baten jabetza intelektualaren inguruko gatazka.
864	Beste batzuk	KO	Zalantzak, sail baten irakasle-ikertzaileak ordezkatzeko poltsen deialdiaren inguruan
865	IRI	KO	Doktore aurreko kontratu bat doktore ondoko kontratu batera aldatzeko aukera.
866	IRI	KO	Sailaren jarduera, prestatzen ari diren irakasle-ikertzaileei irakaslana egoki banatzeko.
867	AZP	KO	Ikastegiak ixteko prozedurari buruzko zalantzak.

868	IRI	KO	Hainbat gai, hautazko irakasgai baten euskarazko irakats eskaintzari lotuta.
869	IK	KO	SICUE mugikortasunean parte hartzeko aukera, baldintzetako bat betetzen ez bada.
870	IK	KO	Gatazka, doktorego tesiaren zuzendariarekin.
871	IK	B	Irakasle baten portaera desegokia.
872	AZP	KO	Gardentasun handiagoa eskatzeko aukera, AZPko lan kontratadunen LEP batean.
873	IK	KO	Irakaskuntza arazoak, atzerriko titulu bat baliozkotzearen ondorioz matrikula berandu egiteagatik.
874	IRI	KO	Kalte ordaina jasotzeko eskubidea, doktore aurreko kontratua amaitzeagatik.
875	IK	KO	Arazoak ikasgelan, irakaslearekiko ustezko etsaitasunaren ondorioz.
876	IK	KO	Hainbat zalantza, doktore aurreko kontratu bati lotuta.
877	IRI	KO	UPV/EHUren iragarki oholak erabiltzea, deialdi politikoak edo erlijiosoak egiteko.
878	IRI	KO	Sailaren jarduera, okupatutako plaza baten deialdian eta esleipenean.
879	IK	KO	Zalantzak, 5. eta 6 deialdiko epaimahaiaren ebaluazio prozeduraren inguruan.
880	IK	KO	Graduaren irakasgaiak ebaluatzeko zailtasunak.
881	IK	KO	Desadostasuna, GRAL baten defentsak epaimahaiak izandako jokabidearekin.
882	IK	KO	Desadostasuna, Epaimahai Bereziaren erabakiarekin.
883	Beste batzuk	KO	Beste hautagai batzuen puntuazioa eskuratzeko eskubidea, lehia bidezko prozesu batean.
884	IRI	KO	Egonkortasuna lortzeko aukerak euskalduntze konpromisoarekin.
885	AZP	B	Gatazka, hierarkian gorago dagoen pertsonarekin
886	IRI	KO	Kontsulta, ikasgeletako diziplina araubideari buruz.
887	IRI	KO	Desadostasuna, aitatasun baimenaren ondoren emandako irakaslanarekin.

888	Beste batzuk	KO	Administrazioaren jarduera, diziplina prozedura batean.
889	Beste batzuk	KO	Irakasgai baten kalifikazioa Selektibitateko Epaimahai baten aurrean erreklamatzeko modua.
890	IK	KO	Azterketa baten data aldatzeko aukera, ezinbesteko betebeharrak bati erantzuteko.
891	IRI	KE	Arazoak, saileko lankide batekin.
892	IK	KO	Ikasketetarako sarbidea, espedientea lekuz aldatzeagatik.
893	Beste batzuk	KO	Jardutea, unibertsitaterako sarbide probaren zati bat ustez galdu delako.
894	IK	KO	Ebaluazio proba baten data aldatzea, hainbat irakasgaitan.
895	IRI	KO	Irakaslana banatzea, familia kontziliazioaren beharrak aintzat hartu gabe.
896	Beste batzuk	KE	Atsekabea, graduiko ikasketetan ez onartzeagatik jarritako erreklamazio baten izapidea eta jasotako erantzuna direla eta.
897	IK	KO	Irakasgai baten kalifikazioa berrikusteko eskubidea gauzatzeko modua.
898	IK	KE	Argazki bat manipulatzeko ikaslearen baimenik gabe.
899	IRI	KO	Jardutea, GRAL batean ikasle batek egindako plagioaren aurrean.
900	Beste batzuk	KE	Desadostasuna, "bikaintasunez graduatu" aipamenaren ukapena dela eta.
901	IK	KE	Desadostasuna, titulu jakin batetik berezko master batera sartzeko aukerak direla eta.
902	IK	KO	Graduko azken mailan matrikulatzeko aukerarik ez izatea, giltza irakasgai bat gainditu gabe edukitzeagatik.
903	IK	KO	Berandutzea, graduiko praktiketako ikasle bati Gizarte Segurantzaren alta ematean.
904	IK	KE	Ikasle batek aurkeztutako GRAL bati buruzko mespretxuzko iruzkinen argitalpena Twitter-en.
905	AZP	KO	Jarduteko modua, haren kontra jarritako funsgabeko kexa baten aurrean.
906	IK	KO	Graduko praktiken modalitatearen proposamenari uko egiteko aukera.

907	IRI	KO	Desadostasuna, sailak egindako irakaslanaren banaketarekin.
908	Beste batzuk	KO	Prestakuntza bidean den irakasle-ikertzaile gisa emandako zerbitzuak zerbitzu orrian aitortzea.
909	Beste batzuk	KO	Atzeritik espedientearen lekua aldatetaren bidez ikasketarako sarbidea eskatzeko modua.
910	IK	KE	Berandutzea, interesdunak egindako hainbat eskaera erantzuneko.
911	IK	KO	Matrikulatzea automatrikulan eskatutakoaz bestelako talde batean.
912	Beste batzuk	KO	Arazoak, UPV/EHUn egindako doktoregoaren dokumentazioa atzerrian homologatzeko.
913	IRI	KO	Irakaslanaren banaketa aldatzea aurrez abisatu gabe.
914	IRI	KE	Zerbitzu bateko langileekiko irakasle-ikertzaile baten errespetu falta, haren irakaskuntza betebeharren oroigarri orokor baten aurrean.
915	Beste batzuk	KE	Ziurtagiri akademiko bat lortzeko zailtasunak, abuztuan idazkaritza ustez itxita dagoelako.
916	IRI	KE	Hizkuntzaren erabilera sexista, GAUR aplikazioaren zenbait pantailatan.
917	IK	KE	Espedientea lekuz aldatuta minor batera sartzeko aukerei buruz unibertsitateak emandako informazio okerra.
918	Beste batzuk	KE	Instalazio baten funtzionamendu okerra, Gipuzkoako Campusaren parke batean.
919	IK	KO	Erasmus hitzarmenean adostutako egonaldia aldatzeko aukerak.
920	IRI	KO	Lehentasun irizpideak irakaslanaren banaketan.
921	IK	KO	Master baten matrikula taldea aldatzea, aurrez abisatu gabe.
922	IRI	KE	Desadostasuna, irakaskuntza aldatzeko eskaeraren ukapenarekin, eta espedientearen informazioa eskuratzeko eskubidearen balizko urraketa.
923	IK	KO	Masterrean taldea aldatzea, aurrez abisatu gabe.
924	IK	KO	Jardutea, espedientea lekuz aldatuta minor batera sartzeko aukerei buruz unibertsitateak emandako informazio okerraren aurrean.

925	IK	KE	Berandutzea, erretiroagatik lana utziko duten irakasle-ikertzaile baten ordezkapenean.
926	IK	KO	Hainbat kontsulta, UPV/EHU ⁿ Jarraitzeko Arauei buruz eta amaierako ebaluazio sistemei buruz.
927	IK	KO	Gipuzkoako Campusean aparkalekura sartzeko ikasleen aukerak.
928	Beste batzuk	KO	Desadostasuna, doktore berriak kontratatzeko deialdiaren erabakiarekin.
929	IRI	KO	Hainbat arazo saileko zuzendaritzarekin.
930	AZP	KO	Ikasle baten portaera iraingarria eta oldarkorra irakasleen aurrean.
931	IRI	KO	Prezio publikoak itzultzea, matrikula baliogabetuz gero.
932	AZP	KO	Lan orduen zenbaketa, lanaldi modalitatearen arabera.
933	IRI	KE	Prestakuntza programak soilik emakumeentzat.
934	IK	KO	Doktoregoari dagozkion prezio publikoak epeetan ordaintzeko aukera.
935	AZP	KO	Lanaldi jarraitua egiteko eskaera ukatzea, zerbitzu beharrak direla eta.
936	IK	KO	Matrikula ordaintzeko zailtasunak.
937	IK	KO	Desadostasuna, GRALaren tutoretzarekin eta ebaluazioarekin.
938	IK	KO	Jarduteko aukerak, practicumaren ebaluazio objektibo bat jaso ezean.
939	IRI	KO	Ezgaitasunak dituzten irakasle-ikertzaileen egoera, UPV/EHU ⁿ .
940	IRI	KO	Plazen esleipenaren aurkako gorako errekurtsoren erabaki proposamena, deialdiaren oinarriekiko kontraesankorra dena.
941	IK	KO	Bibliotekako aretoetan mugikorra erabiltzeko debekua.
942	PDI	KE	Irakaskuntza ebaluatzeko inkestaren banakako datuak hirugarrenei uztea.
943	IRI	KO	Jardutea, ikasle baten intimitatea urratzen duen beste ikasle baten portaeraren aurrean.
944	IRI	KE	Ikasleen arretarako zerbitzu baten disfunczionaltasuna.

945	IRI	KO	Identifikazio pertsonaleko datuak euskal grafiara egokitzea.
946	IK	KO	Ikasleen ordezkari buruzko informazio faltsuaren ustezko difusioa.
947	IRI	KO	LEP baten ondorengo ordezkari politza bateko kideen lehentasun ordena.
948	Beste batzuk	KO	Master bat egiteko aukera, graduoko titulua lortu gabe.
949	IK	KO	Gazte Solidarioentzako Bilboko Udal Etxebizitzaren programan hutsik geratutako plazak.
950	IK	KO	Titulu batean euskaraz emandako hautazko irakasgai gehiago izateko eskubidea.
951	IK	KO	Desadostasuna, ikasketen bekaren ukapena dela eta.
952	IRI	KE	Sail batek erantzunik ez ematea, irakasleen ordezkari buruzko informazio eskaeraren aurrean.
953	IRI	KE	Ikertzaile kontratatuen mugak, irakaskuntza emateko eta GRALak zuzentzeko.
954	IRI	KE	Atzerapen bidegabea, administrazio errekurtsio baten izapidetzean.
955	IRI	KE	Ikertzaile kontratatuen mugak, irakaskuntza emateko eta GRALak zuzentzeko.
956	IK	KE	Harreman eta portaera arazoak, ikasgelako ikaskideekin.
